



ARGIA



SARE ELEKTRIKOA

Noiz arte erraldoien eskuetan?

12-15. orrialdeak



**“Ceviche’-a egitea
ongi dago, baina
ikasi lehenengo
porru-patatak egiten”**

16 | BITTOR BARANDIARAN



**Oihalaren
atzean dagoena**

26 | EUSKAL TEATROA



**“Sexu-hezkuntzan,
edukiak baino
inportanteagoak
dira bizipenak”**

38 | GIZARTEA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #307
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

ANTIWOKISMOA

ESKUIN MUTURRAREN MASKARA BERRIA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO IRUDIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | IÑAKI BARCENA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 36 | GORPUTZ HOTSAK
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 46 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


38 | **SEXUALITATEA GAZTETXOEKIN NOLA LANDU EREMU EZ FORMALETAN**

Nola landu sexualitatea hezitzaileen egunerokoan liburuxka kaleratu berri dute Hiruki Larroxa kooperatibak, Txatxilipurdi aisialdi elkarteak eta Oinherri herri hezitzaileen sareak. Mikel Garciak elkarriketatu ditu egileak eta azaldu dute helduen begirada erantztea eta ez epaitzea dela gaztetxoekin jarrerak eta jokabideak lantzeko lehen urratsa.

Elkarriketak eta erreportajeak

12 | **INET HURBIL**

Itzalaldiak argitu digu bidea: sare elektrikoaren deszentralizazioa

Urko Apaolaza

16 | **PERTSONAIA** | BITTOR BARANDIARAN

“Arrainarena edo okelarena baino askoz ere mundu gozagarriagoa da barazkiarena”

Ametz Aranguren

26 | **KULTURA** | ETORRI BERRIAK

Gidoia jarraitzen ez dutenen agertokia

Ainhua Mariezkurrena

32 | **POLITIKA** | AMAIUR EGURROLA

“Ez dut uste Ernaireren eta GKSren artean modu zuzenean gatazkarik egon denik jai herrikoietan”

Xabier Letona

38 | **GIZARTEA** | GEROTIK... GERORA

“Haurren jakin-min erotikoa kriminalizatzen, moralizatzen eta patologizatzen dugu helduok”

Mikel Garcia

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**  **Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP



Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.

Historikoa

Hemen arrazoi politikoengatik sistematikoki torturatu dela Pernandoren egia da, bi begi eta bihotz bat izan dituen euskal herritar ororentzat. Tortura masibo horiek bideratzeko antolaketa zorrotza egituratu du Espainiako Estatuak. Sistema horren erdigunean Auzitegi Nazionala izan da. Ezinbestekoak ziren atxilotuen inkomunikazioa eta torturatzaileen zigorgabetasuna bermatzeko ardura bikain bete du. Horregatik jo dute historikotzat salbuespenezko epaitegi horren epai batek frogatutzat eman izana Guardia Zibilak euskal herritar bat torturatu zuela, elektrodoen erabilera eta sexu indarkeria hitzez hitz aipatuta. Oso berandu dator eta kalkulaezina den kaltea ezingo du osatu, baina maiatzaren 8an estatuaren indarkeriaren aurka lan egin duten pertsona eta eragile eskergaren ahoetan marraztutako irribarreak ez du preziorik. Orain torturatzaileen izen abizenak behar ditugu.



EUSKAL
HERRIKO
GIZA
ESKUBIDEEN
BEHATOKIA



egiani
20v

FUNDAZIOA

Akordioa EAEko irakaskuntza publikoan

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Fumata zuria, EAEko irakaskuntza publikoan. Sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzeko Hezkuntza Sailaren azken negoziazio mahaia bi egun iraun ditu. Maiatzaren 8 arratsaldean bildu ziren, Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuak deituta. Proposamen berri bat jarri zuen mahai gainean, baina “oso eskasa” iritzi zioten sindikatuak. Hurrengo egunean heldu zioten berriz negoziaketari, sindikatuak hartu-eman zuzenean aritu zen Jaurlaritza, luze jo zuen egunean. Azkenean, sindikatu guztiek sinatu zuten akordioa, ELA izan ezik, hau da, ordezkariak sindikalaren %80 inguruk (STEILAS, LAB, CCOO eta Interinok).

“Hilabeteotako greba eta mobilizazioei esker Hezkuntza Saila mugiaraztea lortu dugu eta behingoz negoziatzeko aukera erreal bat izan dugu”, azaldu dio ARGIAri STEILASko bozeramaile Haizea Arbidek. “LABek lortu du Jaurlaritzak hasierako proposamenean jarri ez dituen baliabideak adostea euskalduntzerako, aniztasunari eta inklusioari erantzuteko eta hezkidetzarako, baita, 15 urtean lehen aldiz, soldatak bertan adostea ere”, nabarmendu du LABek.

Oso bestelakoa da ELA sindikatuaren irakurketa: adierazi du gainerako sindikatuek “gobernuaren presioei men egin” diotela eta irakasleen borrorak ez zuela “amaiera hau merezi”.

ZER ADOSTU DUTE?

Akordioaren puntu nagusiak azpimarratu ditu STEILASek. Lan zama arintzeko, “ordu lektiboak jaitsi eta baliabide gehigarriak txertatu dira”. HH eta LHn 21 ordu lektibo izango dituzte; alegia bi ordu murriztu dira, norberaren irakaskuntza prozeduren hobekuntzarako erabilgarri. DBHn 17 ordu lektibo izango dituzte gehienez eta 23 orduen baitan, familiak artatzeko ordu osagarria.

Irakasleak sarritan kexatu dira lanean duten gehiegizko burokraziaz. Burokratizazio hori arintzeko sortuko den batzordean, zehaztapenak adostu dituzte.

Baliabidetan, 800 langile inguru gehiago izango dira. Baliabideak esleitzeko betekizunak malgutu dira, “eta hala lanpostu gehiago sortuko dira”. Euskararekin lotutako baliabideak gehituko dira, HIPI eta EUSLE orduak gora egingo



dute. Aldi berean, Hizkuntza Proiektutarako Mentoreak sortuko dira euskarara indartzeko. EHI/ALE baliabideak ere handituko dira. Ongizate emozionalaren figura berria sortuko da zentro guztietan, eta orientazio-figurak edota PTak handituko dira LHko zentroetan.

Gazteberritze planean hobekuntzak txertatu dituzte. 60 urtetik aurrera, erretiroa hartu arte herena murrizteko aukera izango dute langileek, simulaziorik aurkeztu gabe, eta 65etik gora irakastorduen erdia murriztuko da.

Ordazkoen uda kobraketa berreskuratu dela nabarmendu du sindikatuak: 165 egun lan egin dutenek uztaila eta abuztua kobratu, kotizatuko eta puntuatuko dute. Horrez gain, “ordezkoen lan baldintzak parekatu eta hobetuko dira”.

Ordainsaria ere puntu beroa izan da negoziaketetan: soldataren %7ko igoera adostu dute denentzat, “datozen urteetan funtzio publikoan aplikatuko diren igoerez gain”. %7ko igoera pixkanaka egingo da: 2025eko ekainean %2, 2026-2027an %2,5 eta 2027-2028an 2,5.

ELA: “AUKERA GALDUA”

ELA sindikatuaren aburuz, sinatutako hitzarmenak ez ditu jasotzen “grebalarik aldarrikatutako eduki nagusiak”. Ratioetan, dio, “ez dago jaitsiera orokorturik”, baizik “bi aldaketa kosmetiko”: HHn eta LHn ratioa ikasle batean murriztea. Soldatetan adostutakoa “KPlari lotu gabeko eta epe luzeko” proposamena dela kritikatu du. “Hezkuntza Sailaren

azken proposamenak ez du galdutako eros-ahalmena berreskuratzen”. Enpleguan, hitzarmenak “ez du bermatzen behin-behineko tasa erreala %8ra jaistea, are gutxiago %5era”. Burokratizazio lanak arintzeko, “epe eta neurri zehatzik ez” dagoela salatu du, “batzorde baten sorrera eta asmo adierazpen orokor bat soilik”. Baliabidetan, proposatutako baliabide berriek “nekez suposatzen dute %1eko gehikuntza”, kritikatu du.

PEDROSA: “OSO POZIK GAUDE”

Akordioa historikotzat jo dute Jaurlaritzatik. “Oso pozik gaude, akordio on bat lortu dugulako. Euskal eskola publikoa eraldatzeko akordioa da”, esan du Begoña Pedrosa sailburuak.

Joan den urtarrilean abiatu zituen EAEko irakaskuntza publikoak greba eta mobilizazioak. Ordutik, tentsioak gora egin du eta hitz gurutzatuak izan dituzte batzuek eta besteek. Pedrosak behin baino gehiagotan adierazi du negoziazioak zabalik egonik grebek ez dutela justifikaziorik, are gehiago, “neurri kanpokoak eta arduragabeak” direla ere esan izan du, sindikatuak interes partikularrak defendatzen ari zirela. Sindikatuak sailburuari erantzun diote hamabost urte daramatzatela lan hitzarmena berri gabe eta salatu izan dute negoziazio bileretan ez dela benetako edukirik jarri mahai gainean. Kontuak kontu, azkenean akordioa erdietsi dute eta maiatzaren 12tik aurrera deituta zegoen hirugarren greba zikloa bertan behera galditu da. ●

MELOI SALTZAILEA

Vox populi



JUNE FERNANDEZ

Ertzain talde bat bi gazte jipoitzen ileapaindegi batean. Lokal barrura sartu dituzte, San Frantzisko kaleko segurtasun kamerek polizia gehiegikeriak filmatu ez ditzaten, baina seguruenik ez zuten espero negozio horrek ere segurtasun kamera zuenik. Bilboko Kontseilu Sozialistaren bideoa argitaratu du ARGIAk eta zabalkunde handia izan du hedabide honen sare sozialetan.

Instagrameko argitalpenak jaso dituen 159 iruzkinen artean, Ertzaintzaren eraso arrazista kritikatzen dute askok. Aitzitik, mezu xenofobo ugari ere nabarmentzen dira, bi hizkuntzatan. Hona hemen euskarazko hiru:

“Zergatik azaldu dira bertan? Zein da testuingurua. Hori jakin behar da”.

“Polizia, lapurretekin, mehatxuekin, bortxaketeekin eta abar gatazka-eremu batean bere lana egiten. Jende guzti honen izenean, ez dakit zein mundutan bizi zareten, Ipar Afrikako gaizkile hauek babesten idazten duzuenoi”.

“Eta etorkin gaiztoen talde batek neska bat bortxatzen duenean? Orduan ere haiei beharrean Poliziari botako zaio errua? Feminismoa eta askapena ez baldin badaude, antiarrazismoa ez da posible!!!”.

Euskal oasiaren mitoa irensten saiatzen ez garenontzat ere, harrigarriak dira halako mezuak, ultraeskuin “konplexugabearen” diskurtso berdintsuak errepikatzen dituztenak, feminismoaren instrumentalizazioa barne. Faxismoa Espainiako kontua dela bezain eroso da pentsatzea bortxatzaileak etorkinak direla eta ez gure senide, maitale edo lagunak.

Ez dut ukatuko lasaigarria dela VOXek aulki bakar bat izatea Eusko Legebiltzarrean eta ordezkaritzarik ez izatea Bilboko Udalbatzan. Alabaina, horrek ez du esan nahi ultraeskuineko diskurtsoen legitimazioak gurean eraginik ez duenik.

Orain dela hamabost urte, halako iruzkinak ohikoak ziren hedabideetan (ondo dakit, Bizkaiko SOS Arrazakeriako bozeramaile nintzen orduan), baina jauzi handia izan da faxistak instituzioetara heldu direla ikustea, Hego zein Ipar Euskal Herrian. Anonimotasunak errazten du gorroto diskurtsoak zabaltzea, eta aldi berean, gero eta armairu gutxiago behar dituzte gorrotatzaileek.

Amaitzeko, bideo horretako nire iruzkin kutuna (euskaratua): “Zer neurriko deskonexio emozionala edo gorrotoa izan behar duzu, hau egin edo txalotu ahal izateko?”. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



EKONOMIA

Iluntasuna argitu beharraz



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Zurea ez da ekologia, zurea ideologia da!". Espainiako oposizio buruaren hitzak dituzue, oraingoan itzalaldia aitzakia hartuta. Zer den ideologia hitza desitxuratzea; trantsizio energetikoa edota energia politika, hitzak dioen moduan, politika hutsa delako. Kapitalismoaren eta bizitzaren arteko talka, hemen ere.

Itzalaldi Handia etorri zait burura, larunbat arratsaldeko pelikula eskas horietako batentzako izenburua. Txuri beltzean egindako pelikula, baina beltzetik gehiago zuritik baino, energiarena zulo beltza delako. Iluna, opakua, zikina. Prestigeiko isuria moduko likatsua. Energia berdeaz hitz egiten diguten arren, funtsean sistemak iluna izaten segitzen baitu.

Eraldaketa sozialari eta demokratizazioari buruz aritzen gara energia kooperatibez hitz egitean. Azken finean, energiarena, beste burujabetzen gisara, gizartea ulertzeko modua baita. Azpiegitura materialen jabetza eta kudeaketa kolektiboa, inor bazterrean uzten ez duena. Pobreziaren adar bat besterik ez den pobrezia energetikoari aurre egin nahi diona. Energia, eskubide gisa aldarrikatzen duena. Beste burujabetzekin, bizitzarekin, naturarekin, uztartzen dena.

Ez da erraza. Ez da erraza halako sistema basatian eta espekulatuzailean alternatibak eraiki eta mantentzea. Are gehiago iluntasuna eta sistemaren konplexutasuna erabili denean alternatibak egon badaudela ezkatutzeko. Erraldoien aurka gabilta borrokan, gure zaugarritasunetik, gure nahi baina ezinetik, herri mailako estrategia garbirik gabe.

Alternatibak lantzen segituko dugu, baina erantzun sistemikoak behar ditugu, ezinbestean. Erpin anitzeko erronkek, energia horietako bat soilik delako, planifikazioa eta estrategia eskatzen dute, epe motzekoa, ertainekoa eta luzekoa. Eta, ezinbestean, egungo sistema energetikoa (beraz, ekonomikoa) zalan-tzan jarriko duena. ●

ANALISIA



Ez, antisisionismoa ez da antisemitismoa

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

"Gazako sarraskiak gerra gertaerak dira, eta erruduna Hamas da. (...) Ez dut inondik inora lotsagorritu beharrik borrokak eramateko Israelen moldeaz. (...) Denak poztuko lirateke Israelek lana bukatuko balu". Haïm Korsiaren hitzak dira, Frantziako Rabbi Handiarenak –juduen komunitatearen kargu erlijioso handiena Frantziako Estatuan–. Hitzaldia eskainiko du Baionako Herriko Etxean maiatzaren 14an. 2024ko agorrrilean plazaratu zituen adierazpen horiek, eta minduta bezain eskandalizatuta, gerra krimenen apologia ikusirik, Parisko Auzitegian jarri zen salaketa. UJFP judu antisisionisten elkarteak prozedura babestu zuen. Justiziak argitu du: salaketari segidarik ez dio eman, ez omen delako "arau-urratzerik" egon. Une berean, Palestine Vaincra eta Urgence Palestine desegiteko –eta beraz ilegalizatze– erabakia hartu du Frantziako Gobernuak. Palestinari sostengua adierazten eta Israelen genozidioa salatzen dabilta bi kolektibo horiek. Ez gehiago, ez gutiago. Baina antisemitismoaren izaera ikusten die Barne ministroak. Nabarmena da antisisionismoa antisemitismoari lotzeko joera Frantziako Estatuan. "Antisisionismoa antisemitismoa da", erran izan du Haïm Korsiak ere. Lotura hori etsigarria eta mingarria zaio senideak bonben artean bizirauten edo hilik dituen palestinar diasporakoari, eta berdin-berdin etsigarria eta frustragarria, Palestinari so egin eta inpotentzia sentitzen duenari. Israeli bideratu kritika oro antisemitismotzat jotzeko lobby ikaragarria bada munduan zehar antolaturik, eta Frantziako Estatuan indartsu eta eraginkor dabil.

Baionako Santa Izpiritu zubiko banderen artean Palestinakoa jartzeko, baina "barne-arazo batzuegatik" berehala kentzeko erabakia hartu zuen Jean-René Etchegaray auzapezak iaz. Badirudi Gazako triskantza sostengatzen duenari ateak irekitzeko arazorik ez duela ikusten. Rabbi Handiaren etorreraren kari, genozidioa salatzeke elkarretaratzea eginen da, segur aski. Beste behin, antisemitatzat joko dira bertan elkartutakoak. Baina ez da egia, fede txarrarekin dabil hori dioena. Postura hertsigarri horren parean, *Antisionisme, une histoire juive* [Antisisionismoa, judu-historia bat] liburua bada ekarpen handia, 19. mende bukaeratik gaur egunera, judu ezagun batzuek sionismoaren kontra idatzitako testuen antologia bat delako. Liburua berriz hartu eta ondokoa atzeman dut: "Haren legeak, zibilak, politikoak zein erlijiosoak, ez direnez juduak, zergatik deitu beharko genioke 'judu' estatu berri horri?". Zadoc Kahn hitzak dira. Nor da? 1868an Frantziako Rabbi Handiaren kargua hartu zuena... Ez, antisisionismoa ez da antisemitismoa. ●

72

artistek eskatu diote Europako Irrati-telebisten Batasunari Israel Eurovisionetik kanpo uzteko; ohartarazi dute Eurovisionek "ezin duela gizateriaren aurkako krimenak estaltzeko balio ukan". Eurovisionen parte hartu duten artistak dira.

%85,5

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen %85,5ak uste du unibertsitatea ez dela "behar bezala ahalegintzen" euskarazko ikasketak bermatzeko orduan. Unibertsitateko Euskara Taldearen hitzetan, "ezinezkoa" da NUPen euskaraz ikastea.

47

milioi euro gehiago jarriko dituzte, Esako urtegiaren segurtasuna bermatzeko; zehazki, urtegiaren eskuin magala egonkortzeko. Ebroko Konfederazio Hidrografikoko (CHE) lehendakariak egin du iragarpena.

*"Sarritan,
ikerketa-objektu
bezala tratatzen
gaituzte
trans pertsonak"*

JOSEBE ITURRIOZ

Naizenek antolatuta, Haur eta gazte transexualitateaz hitz egiteko I. Nazioarteko Biltzarra egin dute eta parte-hartzaileetako bat izan da Iturrioz.

2025-05-05



*"GAZTETXEAK DEFENDATZEAGATIK
JASANDAKO KRIMINALIZAZIO
ETA ERREPRESIO POLIZIALA
SALATZEN DUGU"*

Gaztetxeen arteko harremanak estutu, saretu eta indartzera dei egin du hainbat gaztetxe eta gazte asanbladak, agerraldi bateratuan.

2025-05-07

*"Ezin dugu onartu desobedientzia zibila
egiteagatik talde kriminal antolatu
bateko kide izatea leporatzea"*

MARKEL ADIN

Aroztegiako hirigintza proiektuaren lanak eteteagatik Baztango zazpi herritar epaituko dituzte maiatzaren 19tik 23ra. Aroztegiko Elkartasun Komitearen kide da Markel Adin.

ARGIA.EUS (2025-05-08)



TEKNOLOGIA

Adimenaren biologiaz



DIANA FRANCO EGUREN

Herriko liburutegian, teknologiaren inguruko espazio ireki batean hartzen dut parte. Aurrekoan, haurrentzako robotika proiektu bat sortzeko Arduino plaka erabiltzen ikasi nahi zuten bi emakume gerturatu ziren, bata programatzailea, bestea ni bezalako kuxkuxeroa. Hirurak jarri ginen martxan. Urteak ziren Arduinorekin aritzen ez nintzela. Elektronika ulertzen dudan modua azaldu nien, Arduino plakaz gogoratzen nuena eta erabili behar genituen osagai elektronikoen izaera. Programatzen hasteko unea heldu zen. Programatzailearentzat erronka intelektuala zen, orri zurian idazten hasi zen, eta nik "copy past"-aren bidez bidea arintzea eskaini nion, ez bainintzen gai egiten zizkidan galderak erantzuteko. Bere lagunak gomendatu zuen adimen artifiziala erabiltzea, ikasteko bide bezala. Programatzaileak ezetz esan zigun, jada zekienarekin ulertzen saiatu nahi zuela.

Egoeraz pentsatzen jarraitu dut etxean, eta kasualitatez Noam Chomskyk adimen artifizialaren eta giza adimenaren inguruan egin izan dituen zenbait hausnarketa eta elkarrizketatik tiraka ibili naiz. Ulertu dudana nagatik, Chomsky jaunak gai honetan ezagutzaren jabetza (gaitasuna) eta ezagutzaren erabilera (ekintza) bereizten ditu. Chomskyk dio gizakion adimena gizakiak biologikoki garenari loturik dagoela, gizakiok ezagutzaz jabetzeko modua ezaugarri biologiko uni-bertsala dela. Hori dela eta, adimen artifiziala ezin dela gizakion adimenarekin alderatu, txindurrien adimena alderatu ezin den gisan.

Chomskyk ere badio, ekintzen eremuan adimen artifizialak gainditu egingo gaituela, gizakion adimenaren biologiarekin alderatuta datuak prozesatzeko duen memoria eta abiadura medio. Adimen artifiziala ulertzeko, pisu handiak altxatzen dituen garabi erraldoi batekin alderatu dezakegula dio, inguru espezifiko batzuetan, ekintza zehatzak guk baino hobeto gauzatu ditzakeen tresna. Eta dio, gizakion adimenari dagokionez, informazio gutxiarekin eta energia behar gutxiarekin, egoera anitzetan ezagutza sortzeko duen biologia oraindik guztiz ulertzeko bide luzea dugula. ●

NAZIOARTEA

PKK-k borroka armatua utziko du

ENEKO IMAZ GALPARSORO

PKK-k desegin eta borroka armatua utziko duela iragarri du. Antolakunde armatu kurduak bere 12. kongresuan hartu du erabakia, Abdullah Öcalan buruzagi historikoak otsailean eginiko eskaerari jarraituta. 1984an abiatu zuen PKKk Turkiaren aurkako borroka armatua, eta Nazio Batuen Erakundearen arabera, 45.000 hildako inguru eragin ditu gatazka armatu horrek. Ankarak gerrillari eskatu dio desegitea "guztizkoa" izatea, armen entregarekin eta "PKKri loturiko legez kanpoko egitura ororen" desagerpenarekin.

"PKKren borrokak gure herriari ezarritako ukazio eta suntsiketa politika hautsi du, kurduen auzia politika demokratikoaren eramanez, eta, horrela, bere zeregin historiko bete du". Öcalanek otsaileko deia egin eta gutxira, martxoaren hasieran, gerrilla kurduak erabateko su-etena deklaratu zuen, eta borrokaren beste garai bat hasiko zela azaldu, politika demokratikoaren bidez "ontasunaren, justiziaren, edertasunaren eta askatasunaren" aldekoa. Hori iragarri eta bi hilabetera heldu da bide

horren itxiera, antolakunde armatuaren desegitearekin.

AURREIKUSITAKO AMAIERA

Öcalanek eta Turkiako Gobernuak joan den urte amaieran abiatu zituzten bake negoziazioak, eta Turkiako eskuin muturreko alderdiko buru Devlet Bahçelik eman zuen horren berri, zenbait eskaintza egitearekin batera. Horietako bat buruzagi kurduaren bizi osoko kartzela zigorra baztertu eta bere espetxe zigorra 25 urtera mugatuko lukeen lege prozedura bat abiatzea zen.

Bahçelik Turkiako Parlamentura joateko gonbita ere egin zion Öcalani, han PKKk armak uzten zituela berak iragartzeko. Buruzagi kurduak Recep Tayyip Erdogan Turkiako presidenteak eta herrialdeko beste hainbat alderdi politikok erakutsitako "bakerako borondatea" goraipatu zituen, eta adierazi zuen borroka armatuari amaiera emateko baldintzak sortzen ari zirela. Turkiako Gobernuak, Erdoganen eta Yasar Guler Defentsa ministroaren bitartez, antolakunde armatu kurduari eskatu dio arma guztiak entrega ditzala. ●



TOGA ULUTURK / REUTERS

Emakumeen Mundu Martxa

📷 FOKU / ANDONI CANELLADA

EUSKAL HERRIA / Seigarren edizioa izan du aurten Emakumeen* Mundu Martxak. Maiatzaren 10ean, bost urtean behineko zita Bardean hasi eta Donostian amaitu da. Tartean, Aramaio, Gernika-Lumo eta Irun eta Hendaia arteko zubitik pasatu dira. "Herrien burujabetza eta bizitza duina. Gerra eta kapitalismoaren kontra!" lelopean, Lurraren defentsa, migrazio politikak eta indarkeria matxista izan ditu ardatz.



MOTZEAN

Robert Prevost estatubatuarra da aita santu berria, Leon XIV. Gizonak 69 urte ditu eta, aurreko aita santuak izendatuta, "mundu osoko apezpikuen eta Latinoamerikako batzordearen arduradun" kargua zuen. Hedabideek nabarmendu dute ez dela Donald Trumpen politiken aldekoa.

Administrazio publikoarentzat Gipuzkoako zahar etxeetan lan egiten duten langileen euskara eskakizunak "neurritz kanpokotzat" jo zituen iaz Donostiako epaitegi batek. Epaia ren aurka Gipuzkoako Aldundiak jarritako helegitea atzera bota du orain EAEko Auzitegi Nagusiak.

Aurreneko aldiz Euskaraldiaren barruan Hikaldia egingo da. 83 herri eman dute izena. Iaz hitanoa bultzatzeko sortu zen ZirHika talde eragileak antolatuta du ekimena, Tauparekin batera. Bi helburu dituzte estreinaldian: hika ikusgarri egitea eta jendea hika erabiltzera edo entzutera animatzea.

Kaxmirko su etena hautsi eta tentsioa handituz joan da azken egunetan, India eta Pakistanen artean. Apirilean, talde armatu batek 26 turista hil zituen Indiak kontrolatzen duen Kaxmir eskualdean. Harrez gero, eraso gurutzatuak bizi dituzte bi herrialdeek, ordu gutxi batzuk baino iraun ez dituen su eten bat tarteko.

ITZALALDIAK ARGITU DIGU BIDEA: **SARE ELEKTRIKOAREN DESZENTRALIZAZIOA**

Iberiar penintsulan apirilaren 28an gertatutako itzalaldiak, egungo energia sistemak dituen arrakala guztiak utzi zituen bistan. Enpresa elektriko handien diru gosea, berriztagarrien ezarpen masiboak dakartzan ajeak, eta herritarrok bizimodu hiper-elektifikatuarekiko dugun menpekotasuna. Azpiegitura zentralizatuak bultzatzea baino, tokiko sare autonomoetara itzultzea da bidea, zenbait adituren esanetan.

 **URKO APAOLAZA AVILA**  **DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA**

Apirilak 28, 12:33. Pantaila beltz gelditu da. Lehenengo erreakzioa automatikoak saltatu duen ikustea da. Ez. Pareko pabiloian Antza inprimategiko lagunak berdin daude. Mezu bat iritsi da erredakzio lankide baten sega-potora: Iberiar penintsula osoan joan da argia. “Fusibleak erretzen dira. Automatikoak saltatu. Txinpart elektromagnetikoak leherretzen dira. Mikrofonoak hondatu. Argia badoa. Errezitatzen dugu...”, idatzi zuen Lupe Gómez poeta galiziarra, leihotxo batetik guri begira balego moduan. Armiarma atarian aurkituko duzu poema, Xabier Bovedak euskaratua: “Izar multzoak gara gorputzeko zauri gorrietan sutan”.

Erditze baten poema ez, baizik eta iragarritako *itzalaldi handia*-ren kronika izan zen San Prudentzio egunkoa. Espainiako Gobernuak esandakoaren arabera, bost segundotan 15 GWeko potentzia “desagertu” zen sare elektrikitik, ordu horretan Espainiako Estatuan sortzen ari zen argindarraren %60 inguru. Babes sistemek bata bestearen ondotik saltatu zuten eta arazoa “elur bola bat bezala” joan zen handitzen, Itziar Zubia EHUKo irakasleak Euskadi Irratiari azaldu zionez. Itzalaldia Iberiar penintsula osora zabaldutako. Pirinioen beste aldean ere nabaritu zen denbora laburrez –besteak beste, Ipar Euskal Herrian–, baina Frantziako sare elektrikoaren kudeatzaileak berehala anputatu zuen

hanka herrena, eta ez zen gehiagora joan. Hala ere, historiako itzalaldi handienetako bat izan zen.

Pertsianak jaitsita, gasolina ezin sartu, erosketak zorretan, butano bonbonak ahazturik, mugikorra sarerik gabe, kiroldegia eta kultur etxeak itxita, lantokiak etenda, makinak kieto, eta buruko fusibleak erreta. Halaxe harrapatu gintuen “zero elektrikoak”, hiper-elektifikatutako bizimodu baten zepoan. Gazan genozidioa sufritzen dutenek gure aiene barregarriak entzungo balituzte... haientzat iluntasuna bonbarik gabeko gauaren seinale baino ez litzateke.





JABEEN DIRU GOSEA

Itzalaldia gertatu eta egun askotara, agintariek oraindik ez dute argitu zehazki zerk eragin zuen. Baina energiaren arloan erreferente diren zenbait zientzialarik lehen momentutik jarri dute fokua sektore batengan: berriztagarriak. ARGIA sarritan aipatu eta elkarrizketatu dugun Antonio Turiel fisikariak, *Calambrazo* (Elektrikara) izeneko urgentziatzeko posta idatzi du *The Oil Crash* blog ezagunean.

Laburrean: berriztagarriak masiboki jarri dira Espainiako Estatuan, horiek sarean integratzeko egonkortze-sistemak

ez ordea, kostuak aurrezteagatik. Berriztagarriak gutxiengo zirenean hori ez zen arazo, baina apirilaren 28an bezala %80 suposatzen dutenean, sistemak akatsen bat izanez gero erreakzionatzeko gaitasun gabe geratzen da, eolikoetatik eta fotovoltaikoetatik datorren energiak inertzia edo malgutasun gutxi duelako.

Hala ere, Turielek argitu nahi izan du arazoa ez direla berriztagarriak, baizik eta "horiek ezartzeko enpresa handiek inposaturiko ereduak, euren etekinekin arduratuago daudelako denon ongizatearekin baino". Itzalaldiaren egunean, energia azkarrago sortzeko gaitasuna

duten zentral hidroelektrikoen eta gas naturaleko ziklo-konbinatuko zentralen hornidura handituko balitz, eze-gonkortasunarekin amaituko litzateke. Baina ez zen egin. Zergatik? Geldirik zeudelako. Zergatik geldirik? Egundorretan elektrizitatearen prezioa hutsaren hurrengoa izanik, "zentralen jabeek erabaki zutelako itzalita edukitzea".

Iberdrola, Endesa, Naturgy, Repsol, Acciona... Espainiar energia-enpresa ekoizle eta hornitzaile handienak dira fisikariak aipatzen dituen *jabeak*, larrialdi betean Pedro Sánchezek Moncloara deitu zituen horiek.

Berrikitan, Turielek Hernaniko Florida auzoko San Jose Langilearen elizan emandako hitzaldiaz gozatzeko aukera izan dugu, eta ahobizarrik gabe hitz egin du: “Bilatu daitezke arrazoi teknikoak, baina itzalaldiaren arrazoi nagusia da prezioak ezartzeko sistema perbertso bat daukagula, eta horri gehitu behar diogu egonkortze-sistemetan inbertsio falta handi bat. Badago interes bat eztabaida hau lokazteko, inor ez delako ondo ateratzen: ez Red Eléctrica, ez zentral nuklearrak, ez konpainia elektrikoak, ez Estatuak, ezta Europar Batasuna bera ere”.

Red Eléctrica de España (REE) argindarra banatzeko goi tentsioko azpiegitura sarea eskaintzen du. Sistema zentralizatu hori pagotxa da Iberdrola eta enparauntzat “interes ekonomiko handiak” daudelako tartean, Alvaro Campos-Celadorren esanetan. EHUko Ingeniaritza Eskolako irakasleak sarearen deszentralizazioaren alde egin du *Berría* egunkariko elkarrizketa batean: “Sare zentral horretatik deskonektatu daitezkeen eta autonomia duten behe tentsioko sareak izango bagenu, atzokoa [sic] ez zen gertatuko”.

Aramaioko zuzia

Gurean gero eta ugariagoak diren izaera desberdineko energia komunitateak eta kooperatibak izan daitezke urrats bat energia subiranotasunerantz. Oñatin, Izaban, Garesen edo Erreka-leorren izandako esperientziak azaldu izan ditugu behin baina gehiagotan aldizkari honetan, irla energetikoak eta zentral hidroelektriko publikoak tarteko.

Baina itzalaldi handiak erakusten du oraindik lan asko dagoela eguzki-plaketako energia ekoiztu eta merkaturatzerainoko bidean, Naroa Elortzak zenbaki honetako bere analisisian (ikusi 8. orrialdea) esan bezala. Apirilaren 28an, energia gordetzeko inbertsore-sistema bereziak dituzten landetxe eta etxola batzuk kenduta, Hego Euskal Herriko txoko denak gelditu ziren ilunpean. Denak, Aramaio izan ezik. Arabako herrian argindar sare publiko propioa dute, eta generadore baten bidez eutsi ahal izan zioten.

MUNIZIPALISMO ELEKTRIKOA

Energiaren egungo sistema zentralizatua XX. mendean joan zen sortzen, berdin Espainiako Estatuan nola Frantziakoan. Beste behin, *Reporterre* aldizkari ekologistara jo dugu horren berri jakiteko. *La panne en Espagne peut nous faire repenser les systèmes électriques* (Espainiako itzalaldiak sistema elektrikoak birpentsatzera eramane gaitzake) artikuluan, Émilie Massem kazetariari erantzunez Fanny López historialariak azaldu du sistema hori Bigarren Mundu Gerra ostetik jaso dugula oinordetzan, eta ez dela “naturala”.

López, París-Malaquais arkitektura eskolako irakaslea da eta hainbat lan kaleratu ditu sistema energetikoaren inguruan, tartean *À bout de flux* (Fluxuaren amaieran) eta *Le Rêve d'une déconnexion* (Deskonexio baten ametsa) liburuak. Bere esanetan, hainbat “mito” deseraiki behar dira, besteak beste, “soilik eredu oso zentralizatu batek bermatu dezakeela herritar guztiek berdintasunean izatea sarbidea baliabideetara”. Historialariaren aburuz, badago aukera lurraldeka eta azpiegitura anitzetan oinarrituta, elektrizitate zerbitzu publiko bat eskaintzeko: “Saiatu behar dugu pentsatzen nola izango litzatekeen munizipalismo elektrikoa”.

Berak dioskun munizipalismo elektriko hori lehen ere existitu baitzen. Frantziako Estatuan elektrizitate sarea 1900 eta 1930 urteen artean garatu zenean, eskumena udalek zuten, eta banatzaile publiko eta kolektibo ugari zeuden, tokiko beharrak asetzeko. Baina 1946ko lege baten bidez sektorea nazionalizatu eta Électricité de France (EDF) sortu zen. Geroztik, Frantzian nuklearren garapen masiboaren ondorioz zentralismo hori indartu baino ez da egin, eta egun, Réseau de Transport d'Électricité (RTE) operadoreak du monopolioa, EDFren filiala.

Lópezek azaldu duenez, nazionalizazioaren aurretik 2.800 elektrizitate eta gas enpresa zeuden tokian-tokian; orain apenas geratzen dira ehun inguru, TotalEnergies, Engie eta antzeko multinazionalak irentsiko dituzten beldur. Hala ere, Frantziako Estatu-ko lurraldearen %5 suposatzen dute oraindik, eta badira handi askoak, Grenoblekoa adibidez.

Sistema elektrikoaren “hierarkia” berriz ere lehengora itzultzea da ga-



FOKU / JON URBEL

HERNANI Antonio Turiel fisikari eta CSICeko ikerlariak Urumeako Mendiak Bizirik elkarteak deituta emandako hitzaldian, betekada itzela jaso zuen Florida auzoko San Jose Langilearen elizak: “Zer zentzu dauka inork elektrizitatea sortzea dirua galtzeko? Hori ez dute telediarrioak kontatzen, baina lasai, nik azalduko dizuet”, esan zien bertaratuei.

Nor dago Red Eléctrica-ren atzean?

Espainiako Estatuko goi tentsioko elektrizitate azpiegituraren kontrola duen Red Eléctrica de España (REE) –2022 urtetik “Redeia” izen komertziala darabil– 1999an pribatizatu zenetik, esku beltz asko dira bere jabe. Jesús Rodríguezek *La Directa*-n xehatu ditu REEren barrunbeak.

Konpainiaren akzioen %20ak Espainiako Gobernuaren esku jarraitzen du, baina gainerako %80aren atzean inbertsio funts, enpresa eta izen eza-gunak daude. Seguruenik, ezagunena Amancio Ortega dugu, Inditex inperioren burua, munduko bederatzigarren pertsona aberatsena. REEren %5 kontrolatzen du Pontegadea Inversiones SL enpresaren bidez. Horrez gain, JP Morgan multinazionala (%8,5) edo BlackRock inbertsio funtsa (%3) dauka akziodunen artean, baita Crédit Agricole eta Société Générale frantziar bankuak ere, besteak beste.

Ate birakarien bidez politikatik en-



RED ELÉCTRICA ESPAÑAOLA

Red Eléctricaren kontrol gunea Tres Cantosen, Madrilén.

presa mundura igaro diren pertsonak ere aurkitu ditu Rodríguez zerrrenda horretan: Luis Maria Atienza espainiar ministro sozialista ohia, Martin Gallego

Energiaren estatu idazkari izandakoa, edo Enrique Lacalle Alderdi Popularreko diputatu ohia Espainiako Kongresuan, batzuk aipatzearen.

koa Lópezen ustez, behetik gorakoa izatea, are gehiago klima aldaketari loturiko hondamendiek duten eragina ikusita. AEBetako etsenplua jarri du horretarako. New Yorken komunitate energetiko *isolatuak* sortzen ari dira, artxipelago modukoak, hondamendien aurrean lurralde elkartasun mekanismoak aktibatzen dituztenak: Bronxen, *Coopcity* proiektuarekin 30.000 auzotarrengana iritsi dira modu horretan.

Baina kontuz, kontrakoa ere bada. Manhattan go. Hudson Yards luxuzko urbanizazioan, energia komunitate *itxia* sortu dute: “Horrela, hurakan bat etorri gero Netflix ikusten jarraitu dezakete izotz makina martxan den bitartean”.

Reporterre-ko artikulu berean, Frantziako Zientzia Ikerketarako Gune kide den Jonathan Coignardek hausnarketa egin du Iberiar penintsulako

itzalaldiaren harira: posible al litzateke argindarra moztea biztanleen prekaritatea areagotu gabe? “Kolektiboki eztabaidatu dezakegu zer den lehenik moztu beharrekota eta nola antolatuko garen”, dio. Azken batean, tekno-soluzionismoaren aurretik, sare elektrikoa nola erabiltzen dugun eta haren gaineko ahalmena nola berreskuratuko dugun pentsatu beharko genuke, argia berriz joan aurretik. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Bittor Barandiaran

LEKUAN LEKUKOA, GARAIA GARAIA



ARRAINARENA EDO OKELARENA BAINO ASKOZ ERE MUNDU GOZAGARRIAGOA DA BARAZKIENA



Kax-kax jo dut etxolako atean, segituan ireki didate.
Bi musu emateko prest nengoela eskua luzatu dit Bittor Barandiaranek. “*Ala, ze ongi*”, pentsatu dut. Ederra da barnea eta leihoen bestaldekoa, basoak inguratzen du garaian jatetxe izandako elkarte gastronomikoa. Kafeak eskutan atera gara merenderora, jakin-minez nago sukaldariak zer kontatuko didan. Ez litzaidake inportako astearte goizak hemen ematea.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Sukaldean kuxkuxeatzen ibiltzen den haur hori izan zara?

Kuxkuxeatzen baino gehiago molestatzeko, jaten-eta [barreak]. Akordatzeko naiz sukaldeaz interesatzen hasi nintzela eskolatik “*etxerako lan librea*” bidaltzen zigitenean, hau da, eskolara guk egindako zerbait eraman eta konpartitu behar genuenean, beti saiatzen nintzelako jateko zer edo zer eramaten. Hor hasi nintzen sukaldean amarengana gerturatzen, ez bakarrik molestatzeko edo jateko, baizik eta eskua sartu eta nire kabuz ere aritzeko. 8 edo 9 urte izango nituen.

Jatun ona izan zara beti?

Bai. Bi gauza izan dira txikitan gustatzen

ez zitzaizkidanak: gatzatua eta zainzuriak. Baina esango nuke postreengatik hasi nintzela sukaldaritzan. Esaten nuen “*imaginatu etxean egiten ahal dituzula nahi bezainbeste Phoskito, ze guapo*”.

Hemen ikasi zenuen, Euskal Herrian?

Bai, Donostian, Basque Culinary Center-en. Hasieran helburua horra sartzeko bera zen, hara iristea, eliteria-edo. Sartu nintzenean oso pozik nengoen. Egia da oso gaztea nintzela, pertsona gisa ez nengoela erabat “*egina*” eta giro hartan, burges eta aberatsez inguratuta, galduta egon zaitezkeela, ez bada zure erroak oso ondo lotuta dituzula.

Ni Altus [motxila] batekin nindoan klaserara eta pentsatzen nuen haiek bezalakoa

nintzela. Baina Eskoriatzatik nentorren, baserritik, hemendik [ingurua seinaltatzen du] eta ikusten nuen jendea taxian zetorrela klasera. Gaur naizena baldin banaiz ibilbide hori egin dudalako da, baina uste dut hor sartzen zarenean oso argi izan behar duzula nor zaren eta nondik zatozen.

Erroak aipatu dituzu. Tradizioei eutsi eta transmisioa bermatzeak zein leku du egun Euskal Herriko sukaldaritzan?

Bere garaian mugimendu handia egon zen Euskal Herrian: Euskal Sukaldaritzaren Berria. Arzakek, Subijanak eta horiek denek Frantziatik ekarri zuten lan egiteko



Bittor Barandiaran Arrieta

ESKORIATZA, 1997



Ama aritu izan da batez ere sukaldetan Bittor Barandiaranen etxean. Aurretik, amaren ama. Denbora dezente eman du su artean ere Bittorrekin txikitat, jatekoan eskua sartzen lehenengo eta, denbora pasa ahala, gero eta gehiago koiznatzen laguntzen. 9 urterekin egin zuen lehen sukaldaritza ikastaroa eta Basque Culinary Center-en gero unibertsitate ikasketak. Han-hemenago sukaldetan dabil duela ia hamar urte, beti ikasten. Mungiako Bakea jatetxean ari da lanean egun, etorkizun batean, auskalo non.

modua eta Euskal Herrira egokitu, Ez Dok Amairu-rekin-eta kultur mugimendu bat sortzeko. Egia da horrek kristoren eragina izan zuela, baina gero gure gurasoen belaunaldiari-edo tokatzen zitzaionean, transmisio zerbait egon arren, ez zitzaion jende berriri lekuri utzi.

Izan zen pixka bat “gu gara hemen izarrak eta hau da gure zerua, zuek ondorengoak zarete, beraz, sortu ezazue zuek zuen zerua”.

Eta zein da belaunaldi hori?

Gure aurrekoa, gure sukaldaritzako irakasleak izan direnak: Edorta Lamo Arrea! jatetxean, Aitor Arregi Getaria-ko Elkanon, Roberto Ruiz Tolosan... *Paisaia sukaldaritza* egiten dute horiek. Euren jatetxeak ez dira jatetxea osatzen duten adreiluak bakarrik, hauen inguruan dagoen guztia baizik. Ingurua hori ez balitz, jatetxe hori segur aski ez legoke hor.

Nor garen azaltzeko balio du sukaldaritzak, esateko erro batzuk ditugula eta paisaia bat. Baina ezin diogu horri bakarrik begiratu. Lan munduak jasangarritasun pertsonala ere eman behar digu eta aspaldiko baldintzetan segitzen dugu lanean: ordu asko sartzen, lanaldi zatituarekin...

Zertarako balio dit niri zuk kontatzeak zure ortuko tomatea dela ez dakit zer edo itsasoko beste zera dela gure kultura, gero zure langileek ez badute lan-baldintza duinik?

Eta hori aldatzen ari da?

Nik uste gure belaunaldiari dagokiol. Iruditzen zait sukaldetan badugula identitate kulturala barneratua eta tokatzen zaigula apur bat jasangarritasun pertsonala topatzera joatea. Batez ere gure ondoren datozenek ikus dezaten lanerako esparru deigarri bat. Dagoena baldin bada larunbatetan hamasei orduz lan egitea eta 1.200€ kobratzea, jai dugu. Egia da sukaldaritzan sartzen bazara, argi eduki behar duzula ez zatozela dirutza egitera.

Arzak, Subijana... Denok ezagutzen ditugu izen batzuk.

Haiek ailegatu zirelako zeru batera eta zeru horretan teilatu bat jarri zutelako, pertsona gehiago sartuko balira eurak atera litezkeelako. Nik haiekin ez dut harreman zuzenik izan, bi belaunaldi goragokoak dira, baina haien eta gure artean dagoen belaunaldia ez da ager-

tzen, euskal gastronomiak izen-abizen batzuk badituelako jada.

Hiru Michelin Izarrekin daramatzate zenbat, 50 urte? Lehen egiten zuten gauza bera egiten, gauzak baloratzeko modua aldatu den arren. Zeru horretan segitzen dute izan direnak direlako, ez gaur egun direnak direlako. Gure kultura gastronomikoa izen batzuekin lotu izan da, baina ez da berritu, eta ez bada berritzen galtzera kondenatuta gaude.

Globalizazioak zertan aberastu du sukalde eta zertan egin dio min?

Uste dut jendearen ahotan askoz ere gehiago dagoela jatearena, onerako. Eta alderdirik txarrena da mundu guztiak hitz egiten duela gauza berei buruz: zein gaztek ez daki zer den *ceviche* bat edo *gyoza* bat? Baina zenbatek daki zer den Baztango zuri eta beltza?

Madriren eta Bartzelonan egon naiz berriki. Hiriburu handi denetan saltzen dituzte *smash burger*-ak, ez dakit zerekin egindako *poke*-a, pizzak... Eta ongi egiten baduzu, ba oso ongi, baina heldu da momentu bat non New Yorken edo Erroman bazkaltzea gauza bera den. Ondo dago *ceviche*-a egiten jakin nahi izatea, baina ikasi ezazu lehenengo porru-pataak egiten eta gero gerokoak.

Zergatik ez dugu sukaldaririk ikusten kulturagintzaren inguruko mahai-inguru edo eztabaidetan?

Sukaldaritza apur bat “gustatza” dagoelako kondenatuta. Nonbaitera joaten bazara bazkaltza eta gustatu ez zaizun plater bat ateratzen badizute, ez zara pozik aterako. Eta baliteke helburu horrekin sortua izatea, ez gustatze hori artearen eta kulturaren parte ere bada. Musika egin daiteke ez gustatzeko, molestatzeko. Edo pintura bat. Sukaldaritzari ez zaio hori permititzen.

Bada sukaldari bat, Andoni Luis Aduriz, Mugaritz jatetxean, hori lan-tzen duena. Beretzat sukaldaritzan inportantea dena probokatzea da.

Sukaldari gisa, zer ikusten duzu gaudela ohituta gaizki egitera?

Barazkiak kriminalizatzeko joera handia dago. Oso sartuta dugu buruan barazkiak jatea osasuntsua denez, zapo- rez ezin dutela onak egon, baina hori pasatzen da ez dakigulako barazkiak koiznatzen. Normalean zera egiten



dugu: ura irakiten jarri, barazkiak uretara sartu eta hor utzi gehiegi egosten diren arte. Zaporea, testura eta propietateak galtzen dituzte horrela.

Azkenaldian kanpora bazkaltzera joaten naizenetan, arraina edo okela ateratzen didaten momentua da gutxien gozatzen dudana. Atera diezazukete bildotsa edo txahala; zaporea desberdina da, baina okela da azken finean. Barazkiena askoz ere mundu gozagarriagoa da. Ni orain udaberriarekin txoratuta nago, zu etorri aurretik mendira joan naiz loreak ikustera, ea zer zegoen.

Sukaldaria beti dabil ikasten?

Bai. Eta helmugarik gabe gainera. Mundu batean sartzen hasten zarenean, ikusten duzu dakizun apur hori ez dela ezer. Arrea! jatetxean ibili nintzen lanean, Kanpezun [Araba]. Ehiza animaliei buruz ikasi nuen asko, baita arrainekin lanean ere. Eta hor bukatuta esan nuen “*bua*, ogiak egiten ikasi gura dut”. Bertan zegoen okindegi batean bertako irinekin egiten zuten, ekologikoa-eta.

Kontua da ez dagoela gauzak egiteko modu bakarra. Guk, adibidez, orain Bakean arrainekin egiten duguna da: arrainak ahal bezain fresko ekarri, arrain-saltzaileak ezer ukitu gabe; askotan iturriko ura ematen dietelako eta

“”

**Gure kultura
gastronomikoa izen
batzuekin lotu izan da,
baina ez da berritu, eta ez
bada berritzen galtzera
kondenatuta
gaude**

ur gozoa arrainen etsairik handiena da, osmosia eragiten duelako eta usteltzen hasten direlako.

Zer da osmosia?

Zuk tomate bat hartu eta ozpinetan sartzen baduzu, tomatearen ura ozpinetara joaten da eta ozpina tomatean sartzen da. Zuk ur gozoa sartzen badiozu ur gaziari, gatza nibelatu egiten da, dena nahasten da. Arrainaren kasuan hori pasatzen denean askoz ere errazago hasten da usteltzen. Horregatik guk egiten duguna izaten da arrainak ur gozoarekin ez ukitu, ongi lehortu eta hozkailuan eskegi ondu dadin, zapore gehiago izan dezan. Noski, orain dela 10 urte arraina hozkailuan uztea pentsaezina zen, “zenbat eta freskoago, hobe” pentsatzen genuen. Ba bat-batean heldu da morroi bat esatera ezetz, hobe dela ongi tratatu eta ontzen uztea. Horrelakoekin konturatzen zara aukera asko daudela eta helburu desberdinak lor daitezkeela produktua desberdin landuta.

Zein izan da sukaldari dagokionez orain arte izan duzun ikasketarik esanguratsuena?

Sukaldaritza oso lotuta dago lehenengo sektoreari. Oso lotuta gaude lurrari, zentzu hippy naturista batean eta ikusten dut ez dugula gure inguruarekiko

loturarik. Nik kristoren zortea daukat, lantzen dudana sukaldaritza mota paisaiari lotua delako eta lotzen naudelako lurrarekin. Horrek pertsona gisa eraikitzeko ere asko balio izan dit eta lanean ikasi dut, ez unibertsitatean. Jon Sarasuak esaten zuen “hanka bat lurrean eta bestea airean” behar dugula, apur bat dantzarietara keinu eginez: bat lurrean eduki behar duzu nor zaren jakiteko eta bestea airean apur bat zer dagoen ikusteko. Lurrekoa galduz gero, ipurdikoa hartzeko arriskua dago.

Zein moda sinetsi edo barneratu dugu errazegi?

Azkenaldian ikusten ari naizen jatetxe sortu berriak izaten dira “leku txikitxo bat ireki dugu, upategi txikitxo bat duena, mahasti gutxi batzuk dituen ekoizle gazte batekin elkarlanean, produktua ona da eta...”. Utz gaitzazue bakean. Ekoizle hori txikia da mahasti gutxi dituelako, ez beste ezertan sinisten duelako. Uste dut txikitasunarekiko idealizazioa dagoela, zeren eta gero denek dute Frantziatik ekarritako Bresseko usakumea eta ez dakit nondik ekarritako arraina.

Instagram-en ezagutu zintudan nik, errezeta bideoekin.

Anaiaren ideia izan zen. Masterreko amaierako lana egin behar zuen eta pentsatu zuen sare sozialetarako eduki bat sortzea, ikusten zuelako bazela hutsune bat, sukaldaritza inguruko kontu asko egon arren euskaraz ez zegoelako bat ere.

Gariri [anaia] esan nion orduan nik bideoetan ez nuela berba egin behar eta ez nuela leziorik eman nahi, ideiak bakarrik. *La gastronomía en las sociedades del Bidasoa* (Gastronomia Bidasoako gizarteetan) izeneko liburua topatu nuen orduan etxean eta pentsatu nuen *guapo* legokeela errezetategi bat egitea elkarte gastronomikoetara joaten den jendearentzat, formatu modernizatuan-edo. Lehenengo errezeta, legatza saltsa berdean. Jendearen erreakzioak beldurtzen ninduen hasieran, baina oso harrera ona izan dugu. Orain arte kritikatu izan dudana agian bada nire ideiak plazaratu eta gazteak sukaldaritza gerturatzeke modua.

Elkarte gastronomikoetan sukaldaria ahazten dugula esaten entzun zaitut Euskadi Irratian.

Bai, baina ez naiz konturatu niri sukald

dean egotea tokatu zaidan arte. Niretzako oso gauza normala zen ama edo izeba mahaian zutik egotea, "zer behar duzue?" galdezka, umeak eta gizonak mahaian jarrita zeuden bitartean. Urte luzez Errege eguneko bazkariak galdu nituen, lanagatik. Iaz itzuli nintzenean kozinatzea tokatu zitzaidan, ilusio handia egiten zien denei. Sukaldean nengoela leihotik begiratu nuen momentu batean jende guztia ikusi nuen jarrita, bazkaltzen hasita. Beste urte batez ari nintzen bazkaria galtzen.

Gogoratzen naiz asko haserretu nintzela amarekin eta hor konturatu nintzen ni momentu horretara arte beste aldean egona nintzela, jarrita jaten. Aurten dena prest utzi dugu aurretik, egunean bertan berotu besterik egin behar ez izateko.

Zer jaten du sukaldariak?

Nik lanegunetan, ostegunetik astelehenara, beti egiten dut otordu bat jatetxean. Dagoen lan kantitatearen arabera da jatekoa hobe edo okerragoa: zenbat eta lan gehiago izan, orduan eta janari okerragoa. Zuretzako den janaria prestatzen ematen duzun denbora kentzen diozu lanari, horregatik saiatzen gara guretzat kantitate handietan errazak diren gauzak



prestatzen: lekaleak, arrozak, patatak... koilara platerak finean.

Asteburuetan lantzen ari naizen teknikak eta platerak hobetzen saiatzen naiz eta hori da jaten dudana. Amaren etxera ere joaten naiz batzuetan. Hainbeste denbora kozinatzen eman ondotik beste batek mahaia prestatu eta zerbitzatzea luxua da eta, gainera, amaren janaria bada, hau da, munduko onena, ezin dut gehiago eskatu.

Zein da zure plater edo elikagai gogokoena jateko eta zein prestatzeko?

Esango nuke ez dagoela plater edo produktu bat. Gertatzen zaidana da garaian garaiko produktuekin emozionatzen naizela. Atzo Arrietan egon nintzen eta ilarrak ortutik hartu eta jan genituenean oilo-ipurdia jarri zitzaidan, benetan, emozionatu egiten naiz. Edo antxoa garaia heltzen denean, lehenengo antxoak heldu eta opari gisa jasotzen ditut. Beraz, ez da hainbeste produktua, baizik eta momentua.

Maiatzean argitaratuko da elkarrietzeta hau. Zein errezeta ideia eman nahi diozu irakurleari?

Esango nioke pentsatzeko egun horretan zer gose duen eta erabakitzeko zer nahi duen jan: arraina, okela edo barazkiak. Eta argi duenean joan dadila dendara, ez supermerkatu, eta han galdetu diezaiola dendakoari ea zer daukan, ea zer dagoen ona eta ea zer gomendatzen dion prestatzea horrekin. Segur aski hark emango dio askoz etxekoagoa den ideia bat nik ematen ahal diodana baino. Eta seguru pozik erantzungo diola, ilusio handiagoz eroslea gaztea bada. ●

BILBOKO AREATZAN

maiatzaren 28tik 31ra

2025

GAZTEEK

ikasturtean egindako

STEAM

proiektuak

IKUSGAI

zientzia-azoka.elhuyar.eus

zientzia azoka elhuyar

*bizi
ikerketa!*





Iritziak

Kolapsoaren entsegu bat



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Apirilaren 28ko gauean Bartzelonako Badal Ramblako terrazak gainezka zeuden; hoztu gabeko garagardoak zerbitzatzen ziren, baina jendeak zoriontsu zirudien. “Munduaren amaierak iritsi behar badu, pozik harrapa gaitzala”, esaten zidan auzokide batek. Hamar ordu baino gehiago ziren elektrizitatea joan zela, eta iluntasunak hartuta zeuden kaleak; bitartean, etxeak ezohiko isiltasunez beteta zeuden, telebistarik, mugikorrik eta bideo-kontsolarik gabe jarraitzen baitzuten. Salbuespenezko egoera hori pandemian bizi izan genuenaren oso bestelakoa zen. Protagonismoa ez zuen hartu Pedro Sánchezek pantaila txikitik, ezta betiko militarrek ere; krisiaren kudeaketak protagonista anoniemoak zituen: partekatzeo pilak, kandelak edo janaria zuen zeinahi bizilagun. Goizaldean fluxu elektrikoa bueltatu zen, pertsiana jaitsita zuten erakuslehoetako argiak piztu ziren, eta normaltasunaren errutinara itzuli ginen, kolapsoaren entsegu bat egin ondoren.

Hurrengo egunean, AEBetako Ozeano eta Atmosferaren Administrazio Nazionalaren webgunean egiaztatu genuen atmosferako CO2 kontzentrazioa 430,63 ppm-ra iritsi zela egun hartan, Hawaiiiko Mauna Loa sumendiaren behatokian. Datu horrek ziurrenik ez dizue ezer esango gehienei, baina komunitate zientifikoan kezka hartu zuten. 2015eko Parisko Akordioek ezarri zuten 2025ean berotegi efektuko gasen isuriak jaisten hasi behar zirela, berotze globalak 1,5 graduko muga arriskutsua gainditu ez

Kataluniako oligarkek klima-aldaketa ukatzen dute eta erauzketa fosileko enpresen buru dira, baina erretiroa Kantauri itsasoko freskotasunean ziurtatzen dute

zezan, baina apirilaren 28an atzemandako ppm kontzentrazioak guztiz kontrakoa iragartzen zigun. Energiaren Nazioarteko Erakundearen kalkuluen arabera, 2024ko emaitza beste kolpe bat izan da, hazkundea izan baitu aurreko urtearekin alderatuta. Indian ikatzaren erabileraren gorakada dela edo hegazkingintzarena dela, goranzko joera globalari ezin izan diote buelta eman, ez Europan eta Txinan energia eolikoa eta fotovoltaikoa ezartzeko egin diren ahalegin handiek, ez kontinente zaharraren desindustrializazioak ere.

Neurrigabeko kapitalismoagatik pribilegioak pilatzen dituztenek ez diote galgarik jarri nahi planeta finituko hazkunde ekonomiko infinituari. Beheraldia datorrenerako hegemonia planetarioa lortzeko beharrezkoak diren baliabide mineral eta energetikoak metatzeko lasterketa zoroan sartu gara. Zehazki horri buruz ari dira Donald Trumpen asmo inperia-

lak, Kanada edo Groenlandia anexionatzeaz hitz egiten duenean. Baina Etxe Zurian negazionismo klimatikoarekin daudenean ere B planean pentsatzen dute –ez gizateria osoarentzat, hautatuen kastarentzat baizik–. Planetako zona tropikalak hamarkadaz hamarkada berotzen doazen heinean, iparralderagoko latitudeetara mugituko dira behartutako migrazioak, aire arnagarrigoa eta euri-erregimen erregularra bilatzera. Eskala txikiagoan, Kataluniako oligarkien familia handiak pisuak eta landa-etxeak erosten ari dira Euskal Herrian; klima-aldaketa ukatzen dute eta erauzketa fosileko enpresen buru dira, baina erretiroa Kantauri itsasoko freskotasunean ziurtatzen dute.

Hainbeste bidegabekeriaren aurrean, gazte belaunaldiak ahotsa altza du. Maiatzaren 3an 3.000 lagun bildu ziren Montroig del Camp-en (Tarragona), jatorri korearreko bateria elektrikoen makroplantaren instalazioaren aurkako aldarri ozena egiteko. Irteerarik gabeko kalezu- loaren aurrean, auto elektrikoek irtenbidea irudi lezakete, baina Revoltes de la Terra mugimendu berriak bultzatutako ekintza eta hitzaldietan argi utzi zuten ez dagoela desazkundea beste irtenbiderik. Planetaren odola xurgatzen jarraitu nahi dutenek gidatutako trantsizio berdeak, kasurik onenean, amildegia urte batzuk atzeratu besterik ez du egingo. Gazte belaunaldi honek, azkena izan litekeenak, ez du asmorik onartzeko etorkizunik ez izatera kondentatzen ditugula. Gure betebeharra da haiei babes osoa ematea. ●

Objektu anti-kulturalak



KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



MAIDER LETURIAGA

Momentu honetan, eta buruileraino, Adimen Artifizialari buruzko erakusketa erraldoi bat ikusgai da Parisko Galerie nationale du Jeu de Paume museoan, izenburu honekin: *Mundua, Adimen Artifizialaren arabera*. Erakusketa horretan, hainbat arte obra garaikide agertzen dira, horietarik anitz ineditoak, galdekatzen dutenak Adimen Artifizialaren araberako mundu esperientzia. Hain xuxen, egun, Adimen Artifizialak premiazko galderak eta kezkek sorrarazten ditu, ez baita gehiago detekziora, ezagutzara, sailkatzera, azterketara edo predikziora mugatzen: gaur, sortzaile ere bada. Sortzen ditu testuak, irudiak, musikak, baliabide material eta natural izugarriak erabiliz. Internet eta smartphoneak denbora arrunt laburrean baitezpadakoak bilakatu zaizkigu, baina adituek diote epe are laburragoan alor orotan sartuko dela Adimen Artifiziala, jendeen arteko harremanak, populuen eta estatuen arteko harremanak, gizakia eta lurramaren arteko harremanak osoki eraldatuz.

Funtsean, Frantziako Ikerketa Zentro Nazionalean zuzendari den Alexandre Gefen kritikari literarioak dio Adimen Artifizialak sortutakoak egiazko objektu

kulturaltzat hartu behar direla, eta batio duela Adimen Artifizialaren historia kulturalaren kontatzen hastea. Helburu horrekin, maiatzaren 13an, Parisko liburutegi nazionalen ikerketa egun bat antolatuko du, ikusteko Adimen Artifizialak eragin irudimenak, hainbat eleberrri, film eta arte obraren bidez, nola bideratu dituen berrikuntza teknologikoak. Gefen eta haren taldearen helburua da alternatiba bat proposatzea Adimen Artifizialaren garapenari begira ager dezakegun baikortasun inozoa eta ezkortasun beltzaren artean.

Bizkitartean, giza-kultur mundua oso kezkatuta dago, Adimen Artifizialaren hedapen izugarriarengatik, gure euskal ekosisteman berean. LARRUN gehigarriaren 301. zenbakian, Fermin Muguruzak aipatu zuen film espainol bat, *La Infiltrada*: Muguruzak egileari baimenik ez ziolako eman bere kanturen bat txertatzeko soinu-bandan, horrek kantu bat asmarazi zion Adimen Artifizialari, Muguruzaren sorkuntzatik aski ezberdina plagia salaketa saihesteko, baina halere aski hurbila entzuleak berehala ezagutzeko. Adimen Artifizialak lana kentzen ahalko die laster artistei, baina, horrez gain, gure kulturaren berean infiltra daite-

ke, objektu anti-kulturalak sortzeraino, muga politiko eta etiko guztien gainetik, Muguruzaren musikan egin duen bezala, gure izatetik kanpoko kontakizun eta iruditeriak barreiatuz gure baitan.

Halere, kontu horiek Parisko museotan eta Hegoaldeko aditu eremuetan zabalduak baldin badira, Iparraldean, oraino babestua den oasian bizi gara. Pazko astelehenez iragan den Sarako azokan, gure herriaren historia, gure jendartearen arima kontatzen duen idazle andana bildua zen, bere xinaurri lanak agerian ezartzeko, zinezko objektu kulturalak: Mikel Epalza, Bea Salaberri, Eneko Bidegain, Ekaitz Bergaretxe, eta bertze anitz.

Egun berean hasi zen, Urepelen, gazte bertsolarien ikastaroa. Horiek, liburutik gabe (*Odolaren mintzoa* ez bada), josteta moduan ikasi dute beren errealitatea kantuz kontatzen, fikziotan ezarriz batzuetan, erretorikatik aparteko bertze artifiziotasunik gabe. "Hemen haziak gara": hori dute idatzi Campistron ahizpa artistek Urepeleko plazako pareta batean. Ea ba gure kultura bakean hazten segitzen lortzen dugun, infiltrazio faltsutzaile gehiegirik gabe, harreman zuzen eta zintzoen bidez, delako artifizioeriaren uholdea etortzean. ●

Klima energetikoaren beroketa



IÑAKI BARCENA
EKOPOL ETA
EKOLOGISTAK
MARTXANEKO KIDEA

Energia politikek haserreak eta desadostasun sakonak sortu dituzte ekologisten artean. Ez da gauza berririk. Hemen eta atzerrian. Hemen eta orain, nabarmen. Duela bi urte, 2023ko udaberrian, gure ikerketa taldeak (ekopol.eus) hiru mahai-inguru antolatu zituen Donostian, Gasteizen eta Bilbon, askotariko eragileekin, energia berriztagarrien politiken azterketa egiteko gogoz. Paradoxikoki, diskurtsoen arteko desberdintasunak parekotasunak baino handiagoak suertatu ziren. Eta urte bi pasa ahala, gure borondatearen aurka, klima politikoa ez da baretu. Aritz Otxandiano Fagorrek jasangarritasun arduradunaren aurkako bengalak sektarismoaren azken seinale krudela izan dira.

Trantsizio energetikoa edonon aipatzen da, nazioarteko instituzio politiko eta komunikabide nagusietatik, auzo edo komunitate txikietaraino, eta nago ez garela ari gauza bera seinalatzen eta adierazten. Garapen sostengarriaz edo demokrazia parte-hartzaileaz gertatu zaigun moduan. Baina bizitzan ari garen koiuntura ekosozial kritikoak galdera ugariarekin interpelatzen gaitu. Ez al da Ukrainako gerra energiaren afera bat? Euskal Herrian dugun zor energetiko eta ekologikoa energia berriztagarriekin kitatuko dugu? Nork gidatu behar du eral-

daketa energetiko hori eta nola pasako gara maila lokaletik Euskal Herriko mapa energetiko ekosozialista (ekokapitalista badugu jadanik) oso bat diseinatzerara? Zeintzuk izango dira plangintza horren erdiguneko ardatzak?

Sistema energetiko kapitalistak ez ditu inoiz muga ekosozialak onartuko. Handitzean eta pilaketan ditu bere ari-ma eta funtsezko izaera, desjabetzearen bitartez, noski, David Harvey-k dioenez. Horregatik, nire uste apalean, bideratzen ari den trantsizio teknologikoa antzua da. Ez dakar deskarbonizaziorik eta bide horretatik klima aldaketaren politiken iruzurra politika energetiko erratuekin nahasten da. Europako Batasunak gasari eta nuklearrari *trantsiziozko energia berdeak* deitzea adibide gordina dugu.

Energia berriztagarrien “inplementazio ordenatua” eta justua egiteko, desazkundera eta planifikazioa dira ezinbesteko tresnak. Ez eduki dudarik, korporazio multinazionalak planifikazioaren txapel-dunak dira. Baina euren plangintzetan mozkin pribatua edo krematistika-irabaziaz aparte ez dago beste ipar orratzik. Duela gutxi ezker abertzaleko lagun on batek esan zidan: “Zer nahi dugu, Repsol eta Iberdrola soluzioaren parte izatea edo arazoarena?”. Nire ustez, korporazio horiek dira arazoa. Osoa! ●

Gaingiroki



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Urteak ziren elkar ikusten ez zutela. Klean elkarrekin topo egiten ez zutela. Egoera kanpotik ikusita, bi ezagun besterik ez ziruditen. Atzean daude, oso atzean, gaztaro hasierako urte bizi haiek, non kuadrilla bereko lagunak ziren. Non eguna eta batez ere gaua konplizitatez partekatzen zuten, mundua aldatuko zutela aldarrikatuz.

Bata terraza batean jarrita, maiatzeko eguzkiak masailak gorritzen zizkion. Bestea kopetan izerdi puntu bat zuela agertu da, itzalpe baten bila. Aspaldi gertatu gabeko topaketak begiak zabal-tzea ekarri die biei. Hamar minutu inguruko solasaldia egin dute. Hasieran,

osasun kontu batzuk aipatu dituzte. Gerrogo, gurasoen zahartzeaz eta seme-alaben hezkuntza erronkaz aritu dira. Gaingiroki.

Distantzia adostu horretatik mintzatu dira. Eroso antzean. Terrazan zegoenak ez du bestea esertzera gonbidatu, eta oinez zihoanak ez du bertan gelditzeko keinu nabarmenik egin. Gatazkarik ez, beraz.

Iragan partekatua baizik ez duten bi lagunak konforme agertu dira topaketa kudeatzeko moduarekin. Oraina ulertu eta praktikatzeko erarekin. Denboraren joanean elkarrekiko jakin-mina edota gorputz grina galtzea normalizatu duten bikotekideen gisara. ●

Talenturik behar ez duten lanak



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Talentu faltaren mamua da azkenaldian ekonomiaren ikuspegi kapitalista hegemonikotik ezarri nahi diguten eta denek ontzat eman behar dugun ideia nagusietako bat. Arazo artifiziala da, eta ikuspegi oso elitistatik, gure egunerokoan ez dagoen denon arazo bihurtu nahi dute.

Talentu falta zer den definitu behar genuke. Talentua ez da falta gure herriko azken gozogintza labea itzaltzen dutenean, herriko ostatua kudeatzeko inor aurkezten ez denean, baso, baratze eta larreak sasiz betetzen direnean, edo zaintza kate globala emakume pobretuen bizkar gainean uzten dugunean. Talentua falta da ekoizpen-kate kapitalista garatzeko gaitasun hiper-espezializatuak behar direnean. Eta ekoizpen katea ezin da eten, beraz, talentudun pertsonak erakartzeko edozer da zilegi, komunitateak izan ditzakeen beharrak zapaldu behar badira ere. Konturatzen bagara, talentu gabeko pertsonak ere ezinbestekoak dira ekoizpen-katean, beraz, hor ere edozer da zilegi, baina kontrako norabidean: langileen eskubideak zapal-

Jarraitu behar dugu beharrezko lanen inguruko erabakiguneak langileon eskuetan jartzen eta talentuaren inguruko diskurtso eta praktikak modu kritikoan jasotzen

duta eta oinarri materialak prekarizatuta.

Konturatuko zineten talentuaren ikuspegi elitista gailendu dela inguratzen gaituen lanari buruzko diskurtsoetan, eta kontzeptua bera susmagarri bihurtu dela. Baina proiektugintzari eta komunitateari begira jarrita, nabarmena da epe motzean talenturik behar ez duten lan asko beharko ditugula.

Kapitalismoaren hiper-espezializazio beharretik kanpo geratzen diren

eta bestelako gaitasunak dituzten lanak, bizitza posible egiten duten gaitasundun langileek eginak. Gure auzo eta lurraldeetan bizi ahal izateko, denetarik lanak beharko ditugu, zaintza kolektiboaren ardatzetik, komunitatearen beharrei erantzungo dietenak, eta kasualki talenturik gabeko gaitasunen iruditegia kokatu dizkigutenak. Horrela, elikadura, pertsonen zaintza, hezkuntza, herrigintza, konponketa eta berrerabilpena, kultur sorkuntza eta merkataritza txikia bezalako lanen beharrezkotasuna azpimarratu beharko ditugu eta garrantzia berezia eman beharko diegu.

Olatukoop sarean abiatu dugun hausnarketan, lan desiragarri eta burujabeen inguruko lanketa egiten ari gara, izan ere, talentuaren krisia baino, erreleboaren krisia dugu sudur puntan. Beraz, jarraitu behar dugu beharrezko lanen inguruko erabakiguneak langileon eskuetan jartzen, talentuaren inguruko diskurtso eta praktikak modu kritikoan jasotzen, eta lan, lurralde eta bizitza bizigarriak posible egiteko gaitasunak sortzen, garatzen eta saretzen. ●



Sareko,
gure elikagai ekologikoen bilatzailea.

ekolurra.eus



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euzkadi

Babesleak:

Euskadi, auzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Europar Batasunak
kofinantzatuta

APIRIL
~
MAIATZEAN

Azokaroa!

30 ean
ORTZAIZE
MENTA
liburudenda

18.30

"HETERO" LIBURU AURKEZPENA

UXUE ALBERDI EGILEAREKIN



7 an
ZIBURU
Baltsan

19.00

"RR -6-ERRE(AH)ALA"

MAIALEN LUJANBIOren ERREZITALDIA



10€ pintxoak barne

16 an
URRUÑA
Berttoli

19.00

"BIHARRAREN HEGIETAN"

MADDI, AINHOA eta IXAK SARASUA
eta JULEN LEZAUNen
ERREZITALDI MUSIKATUA



5€ pintxoak ondotik

19 an
uhinetan
EUSKAL
RRATIAK

19.00

"EUSKARAZ SORTUZ (DUIN) BIZI ?"

MAHAI INGURUA XIMUN FUCHS (Artedrama, Axut)
ETA AMAGOIA GURRUTXAGA (Lanartea)



23 an
AZKAINE
Bil Toki

19.00

"GIZATASUN ARRANTZALE"

MIKEL EPALTZA

LIBURU AURKEZPENA

EGILEAREAKIN

(eta Mixel Jorajuria itzultzailearekin)



28 an
DONIBANE
LOHIZUNE
Mediateka

19.00

"MASUSTA ERREXIMENTA"

LIBURU AURKEZPENA

EKAITZ BERGARETXE EGILEAREKIN



ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO
AZOKA




ARGIA



BALTSAN
ELKARTEA



EUSKAL
RRATIAK



ZIBURU
CIBOURE



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

Gidoia jarraitzen ez dutenen agertokia

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Koiunturak alarma gorria piztu dio euskal antzerkigintzari, eta ez da izango zauririk ez duelako, baina hilzorian al dago? Fokuek zer argitu nahi duten eta zer ez, hori da gakoa. Butakaren noranzkoa, alegia. Oihala zabaldu da eta antolatzaileak eserlekuei begira daude. Lanari baino, garrantzia handiagoa ematen ari zaie eserleku huts bakoitzaren zamari. Hustasunaren erantzukizuna, ordea, ez da artistena.



Antzerkia ogibide bilakatzen denean eta gosetik atera nahi gaituenean, dirua dagoenean medio, territorio labaingarri batean sartzen da: kultur industrian eta merkatuan. Kanon klasikoetatik aldentzen direnek, baita artea sortzeko edo taldea antolatzeko irizpide propioa dutenek ere, zailago dute zirrikituak topatzea. Hautu sortzaile, kultural zein dramaturgikoak egiteari ez uztea dira konpainia hauen marra gorriak.

Datozen lerrootan euren agertokian eseri eta panorama zein den begiratzera gonbidatu gaituzte kide hauek: ATX Teatroko Iñaki Ziarrusta, Metrokoadroka Sormen Laborategiko Oier Guillan, eta Infinitudramako Maite Aizpuru, Maiana Etxeberri eta Matxalen De Pedro.

KRISIAN DAGO TEATROA?

“Euskal teatroa beti izan da zonbi bat, beti izan da hilda zegoen eta hiltzeari uko egiten dion *rastrojo* bat”, ekin dio solasari Oier Guillanek. 30 urte daramatza honetan, eta ez du inoiz ezagutu krisia ez den beste egoerarik; beti orekari eusten. Azkenaldian, ordea, pilpilean dago gaia: “Ondo dago noizean behin sorkuntzari dagozkion tentsioak eta tentsio politikoak berrartzea; gogoratzen ditut egungoak bezalako beste garai batzuk ere”.

Krisia puntuala dela onartzetik urrun, arazoa estrukturala dela azpimarratu du, eta horrek zerikusi handia

"Kulturarako inbertsiorik handiena turismora begirakoa da; gu bihurtzen gara feriako tximinoak"

Iñaki Ziarrusta

ATX Teatroa

duela erakunde publikoetatik datozen kultur politikekin, baita euskarak haie-tan bizi duen egoerarekin ere: “Kulturan eragiteko sortu diren laguntzak, politikak edo estrategiak, erdarazko teatroaren neurrira daude egokituta, balio jakin batzuen arabera; batez ere emaitzari eta produktuari begira, eta ez hainbeste ikerkuntzari, dramaturgia propioen garapenari, konpainien egituratzeari edo prozesuei”.

ATX Teatroak irakurketa konpartitzen duela baieztatu digu Iñaki Ziarrustak. “Gizarte interesgarriago bat egiteko aukera galtzen” gabiltzala uste du, eta instituzioak seinالاتu ditu, kulturen gehiago inbertitu behar dutelako. Baina atzetik datorren jende gaztearengan esperantza sumatu du: “Ikuspegi kritiko batekin datorren jendea ari da heltzen, gauzak beste modu batera egiten”. Ho-

riek dira, besteak beste, Infinitudramako sortzaileak.

Antzerkigintzari tradizionalki dago-kion irizpide kolektiboa ardatz hartuta bultzatu du Maite Aizpuruak Infinitudrama proiektua. Bide propioa abiatu aurretik, egitura enpresarial baten barruan ez zeuden taldeak ezagutzeko zortea izan zuen, besteak beste, Metrokoadroka eta Horman Poster. “Egoera ez oso pribilegiatuan zeuden pertsona batzuk izugarritzko saiakera egiten ari ziren sare bat sortzeko, birpentsatzeko eta mundu guztiari, antzerkigintza honetan leku bat emateko, bere bertute eta akatsekin”, adierazi du Aizpuruak.

Aipaturiko bi talde horiekin definitu ditu antzerkiarekiko baloreak eta sistematikoko ipini nahi dituen marra gorriak. Militantzia esparru gisa ulertzen du: “Antzerkia, ogibide bezala, hortik ulertu dut, beraz. Bilaketa konstante bat da, baina eredu hori eduki izana asko baloratzen dut”. Era berean, denborarekin jakintza trebatzen doa eta balore minimo batzuk finkatu zein ikuspegiak zabaldu behar direla sinetsita dago: “Konfiantza eremu bat sortzen da, baina era berean, harreman laboral bat ere bai. Kapitalismoan surfeatzen ikasten ari gara, ahalik eta praktika onenak eduki nahian. Nola antolatu kolektiboki, kontutan hartuta ogibide bat dela eta sistema oso estu batean gaudela? Niretzako oso inportantea izan da ikustea zertan ez dudana pasako langa”.

EUSKARA ALTERNATIBOA DENEAN

Erreportajeko antzerki talde hauen hautuen artean euskara hutsean sortzearenak harrotzen du hauts gehien, ez delako batere masiboa, Euskal Herriko panoraman funtzio esanguratsua betetzen duen arren. “Ez da komertziala, ezta politikoki interesgarria ere, ez ditugulako numero handiak mugitzen”, dio Guillanek.

Zenbakiak hartuta, euskal programazioa askoz ere murriztagoa da gaztele-rakzkoa baino. Umeentzako antzerkia euskarazkoa izatea ia automatikoa da, politiken barruan kokatzen baita. Ume horiek handitzean, ordea, nora joango dira euskal teatroa ikustera? Ziarrustak dio dena “anekdota” bat dela, “panfleto” bat, “batzuek programatzen dituzte hiru antzezlan urtean euskaraz eta besteek bat ere ez”.

Berangoko eta Barakaldoko kasuak aipatu ditu: “Berangon teatroa egiten dugu ehuneko ehun euskaraz umeen-

ATX Teatroaren 'Marmarra' antzezlaneko irudia.



tzat, baina ehuneko ehun gaztelaniaz helduentzat. Eta Barakaldo, Euskal Herriko laugarren hiri handiena izanik, urtean 35 ikuskizun; horietatik euskaraz gutxi, eta gehienak umeentzat. Euskarazkoon kasuan, hor sartu nahi badugu, hiru edo lau aukera baino ez dituzu”.

Euskara, beraz, ez da faktore erabakigarria dirulaguntzak banatzeko unean eta, hala, “alternatiboa” bilakatzen da Euskal Herrian bertan. Aldiz, laguntzak eskuratzeko, puntuak ematen dituzten ezaugarrien zerrendan hauek ageri dira: euskaraz izatea, emakumeak izatea, sortzaile berriak izatea... Zera dio Ziarrustak: “Instituzioek mugimendu sozialen diskurtsoak apropiatzen dituzte, eta guk, bizirauteko, baliabide publikoetan sartzeko, diskurtsoa saldu behar dugu, militantzia politikoetako diskurtsoak transformatu, munduko min guztiekin”.

Era berean, ez da samurra gosea pastelaren zati txikiarekin asetzea, baina aurrez esandakoa errepikatuta, bizirik

“Nazkatuta nago konpainien eta artisten bizkarraren gainean egotea publikoa sortzearen ardura. Astakeria da”

Matxalen De Pedro
Infinitudrama

diraute. “Gaztelaniaz eta euskaraz egiten duten konpainiek gehienbat egiten dute uste dutelako ezin dutela bakarrik euskaraz egin, bestela hilko liratekeela”, dio Ziarrustak. Baina arrazoia ere badutela dio, “gorriak” pasatzen dituelako berak: “Jende guztiak esaten dit, nire semeak barne, zergatik ez dudan espainolez ere egiten. Badakit lan aukera gehiago edu-

kiko nituzkeela, baina ez dut nahi. Gurea militantzia da, baina ez militantzia politikoa, bizi militantzia baizik. Gure printzipioak izango dira daukagun gauzarik onena. Gure heriotza izango dela? Ba oinak aurretik joango naiz. Esana dut, ez dut aldatuko zentzu horretan”.

Ipar Euskal Herrian euskarak, hizkuntza ofiziala ez den heinean, are balore gutxiago dauka instituzioetan, baina indar handiagoa ikusle goaren artean. Maiana Etxebarri hainbat konpainiatan aritu da, batez ere dirurik mugitzen ez dutenetan, ohikoa izanik hura lortzeko esperantzarik gabe lan egitea: “Frantzia oso oso prekarioa da. Badira diru laguntzak eta bada sistema bat non baden dirua. Baina, batzuetan konpainia batek pasatzen ahal ditu hamar urte autoproduzitzen diru laguntza bat izan aitzin. Oso piramidala da eta beti berdinek lortzen dute. Ematen du, zinez, dado baten jokoa; ez dakizu sobera nola aterako den”.



Infinitudramaren 'Erresistentzia arazo fisikoa da' antzezlaneko irudiak.



Kudeaketa nagusia Parisen ematen dela kontatu du Etxebarrik, eta dirua jasotzen duten konpainiak ere, “macronismoarekin”, nabaritzen ari direla aldaketa bat. “Dena ari da aldatzen politikoki, eta, beraz, badira departamendu batzuk kopurua kentzen ari direnak. Desagertzen ari dira goian dauden konpainia asko ere”.

Bestalde, Maskaraden, Pastoralen edo gero eta gehiago indartzen ari diren Libertimenduen gisako herri antzerkiek bidea erraztu die euskaraz sortzen ari diren espresio berriei, antzerkia euskaraz ikusteko ohitura indartsua baita. Etxeberriren esanetan, “euskaraz egiteko gogoak eta euskara jakiteak badu existitzeko beharra”, eta baloratua da, “jendeak ikusi nahi du”.

Iaz, Izpurako zonaldean, dantza, kantua eta antzerkia uztartzen zituen emanaldi bat eskaini zuten, urtebeteko lanaren emaitza. Ez zen Maskarada izan, ezta Pastoral ere, baina sekulako arrakasta izan zuen. Arrosan, Ezpeletan eta Larzabalen ere badira eskaintza kulturala egiten duten hainbat jatetxe edo elkarte. Zailtasuna profesionalizatzeko asmoa dagoenetik sortzen da: “Zerbait muntatu nahi duzun momentutik bazoaz saltzera zure sentsibilitatea. Zure egiten duzun hori produktu bilakatzen da eta gauzak zailtzen dira. Antzerkian, dantzan edo

"Euskal teatroa beti izan da
zonbi bat, hilda zegoen
eta hiltzeari uko egiten dion
rastroj bat"

Oier Guillan
Metrokoadroka

kulturgintzan aritzeaz gain, beste gauza batzuetan gara izan. Izan artzain edo izan egurgintzan”.

Honetan guztian Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek paper garrantzitsua betetzen duela azpimarratu du bertako kide Matxalen De Pedrok. Izan ere, elkarteak sortzaile, antzerki talde, antzerki idazle, antzerkizale eta bestelako figurak batzen ditu, eta balio horiek dituen “erreferentzia bakarra” da euskararen lurraldean. “Antzerkigile eta antzerkizaleen arteko nahasketa oso garrantzitsua da; nukleoa euskara eta antzerkia dira, eta beharrei erantzuteko proposamen aktiboa da”, dio De Pedrok. Interlokutore politikoa ere badela gehitu du Aizpuruak. Euskararen aurka emandako era-

soen aurrean EHAZEK hartutako jarrera adibide gisa ipini dute.

BANAKETA DESPROPORTZIONALAK

Arreta jartzen denez leihatilako salmentan, ikuspegi komertzialean eta balio jakin batzuetan, hortik kanpo geratzen dira gehienetan bai euskara, bai esperimentazioa eta bai ikerketa. Industrializazioak eta globalizazioak erabat eragin du masa kulturak munduarekiko daukan pertzepzioan, kritikotasun ezean eta utzikarian. Artean ere islatzen da hori, Ziarrustaren esanetan: “1936ko Gerratik geroztik, 40 urteko diktadura batetik. Gure hizkuntza debekatzearaz gain, identitatearen ukazio bat egon da, eta Hego Euskal Herriak, behintzat, berratu egin du”.

Alderdi politikoei, eskuin zein ezker, ez dute kultur politika garbirik sortzailerik hauen iritziz. Aizpuruaren esanetan, merkaturatua librea denez, ez dago inongo irizpide bateraturik: “Baina instituzioak diru publikoa diren heinean tematu behar da, bestela, dirua bakarrik dute egin ahalko lukete hau”. Guillanen iritziz, ez dago “kultur politika errealki”, eta baldin badago “oso kontserbadorea da eta enpresari lotutakoa”. Hezkuntzan edo osasungintzan inbertitzea gauza “normalizat” hartua da; artean inbertitzeak, ordea, zalantza sortzen du.

Kritika sakona egin du Guillanek: “Gure agintariei ipintzen dute atentzioa dirua eta prestigioa ematen duen horretan. Eta nahi dugu *Leon Erregea* bezalako produkzio batekin mundu zabalera hedatu. Edo Guggenheim. Oso ondo, baina non daude Euskal Herriko eskultoreak, pintoreak eta zein baldintzatan? Edo *BilboFest*, ez dira gai ezta *Euskal Jaia* esateko ere. Hori bai, harri-jasotzaileak, aizkolariak, txalaparta, euskal dantzak eta turismoak nahi duen guztia. Kulturarako inbertsiorik handiena turismora begirakoa da. Eta gu bihurtzen gara feriako tximinoak”. De Pedroren ustez, zuzendari artistiko eta programatzaileek botere posizioa erabiltzen dute sormen prozesuetan eragiteko.

Gauza jakina da, ordea, eserleku gehien betetzen dituzten karteldegia izen-abizen ezagunak dituzten lan horienak direla, telebistan atera diren aktoreak dituenak, kasuan kasu.

Programatzaileak, finean, helburu hori jartzen du, eta hori “akats larria” dela iritzi dute. “Zer da *arrakasta* kulturaren? Leihatilarekin lotzea. Kolore guz-



Metrokoadrokaren 'Artxibo biluzia'.

tietako zinegotziak ikusi ditut horretara erortzen", esan du Guillanek, eta gehitu: "Egiten baduzu ikerketa bat, mediazio bat eta azaltzen badira 50 pertsona, niretzat BECen 10.000 sartzeta baino arrakastatsuagoa da". Eta BECekoari baliorik kendu gabe, espazio prestatu, egokitu eta kalitatezkoen beharra aldarrikatu du, ezin baita kultura eredu horren baitan neurtu.

Idea beraren gainean egin du hausnarketa De Pedrok ere: "Nazkatuta nago konpainien eta artisten bizkarraren gainean egotea publikoa sortzearen ardurara. Astakeria da. Artistei eskatzen diegu sortzea, bitartekaritza lanak egitea, ekonomiaz jakitea, publikoa erakartzea...". Batzuetan, programatzaileek sare sozialako jarduna eta jarraitzaile kopuruari begira egiten omen dute analisia, publikoa erakartzeko gai izango ote diren ondorioztatzeko. Baina, haien lana ez da soilik lan bat antzokira ekartzea: "Kultur politikez ari bagara, onartu egin behar da programatzaile dagoenak ezin duela magiarik egin baliabiderik gabe, baina herria eta publikoa ez dira inorenak eta oso askotarikoak dira. Ohitu badituzu bakarrik *mainstream* diren proiektu batzuetara, publiko *mainstream* bat baino ez duzu edukiko".

Konplexua bada ere, antzokia ez betetzeak ez du esan nahi jenderik ez dagoenik. Herri bakoitzean publikoa fidelizatzeko politikak egin behar direla azpimarratu dute. Guillanek Oartzungo adibidea kontatu du: "Programazioan erabakitzeke talde ireki bat dago eta urte asko daramatzagu horretan lanean. Sortzen baduzu ohitura bat gauza desberdinak ikusteko, irizpide batzuen gaineko konfiantza bat eta proposamenak egiteko, publikoak erantzuten du. Horrela sortzen da kultura bizitzeko modu aktiboago bat". Baina horrek denbora, esfortzua eta prestutasuna eskatzen du, eta instituzioak ez daude horretarako prest; hortaz, hasierako puntura itzultzen gara. Bat egin dute elkarriketatuak: programatzaile as-

kok, baliabideez gain, formakuntza eta gogoeta ere behar dute.

"Dena da ezaguna, dena klitxeak eta dena gezurra", dio Ziarrustak. Baina era berean ez dago denentzat lekurik, eta horrek etengabeko lehiara eta konparazioetara daramatza talde denak, "pastel puska galtzearen beldur". Horrek dinamika txarra dakar sareak sor ditzaketenen artean, "elkar laguntzeko praktika onetan zentratu beharrean", gehitu dute Infinitudramakoek.

BAINA SORKUNTZA EZ DAGO KRISIAN

Alabaina, sormen artistiko aldetik eta estetikoki, inoiz baino zabalagoa da Euskal Herriko arte eszenikoen plaza: "Euskara hutsez lan egiten duten belaunaldi ugari jende asko dago, proposamen askorekin, eta dramaturgikoki oso interesgarriak".

Erreportajeko antzerki talde hauek lanean ari dira orain ere: *Marmarra* lanearekin biran ATX teatroa eta formatu txikikoa den *Balbea* obrarekin; *Artxibo biluzia* eta estreinatu berri duten *Aztia* lanean Metrokoadroka, bai eta otsailan aurkeztuko duten *Bi baso bat ur* eraikitzen; eta sukalde lanetan Infinitudrama, *Promesarik txikiena* eta *Adarbakarra* obrekin eta udazkenean estreintzeko asmotan. Esan beharrik ez dago, sormen prozesu konkretu hauez gain antzerkiari erpinak zabaltzen ari direla iniziatiba txikienarekin ere eta okupatzen duten espazio bakoitzean: kolektiboki zein indibidualki.

SARETZEN ETA I(RA)KASTEN

Hainbatek hala dioten arren, ez da Madrilera edo Bartzelonara joan behar antzerkia profesionalki egiteko: hemen badira euskaraz aritzen diren hainbat eta hainbat konpainia. Dantzerti gisako eskola erreferenteekin lanketa egiteko beharra ikusi du bertako irakasle den De Pedrok, gauzak aintzat ez eman eta ikasleak interprete hutsetik haragoko izaera bat garatu dezaten: "Aktore sor-

tzaileak behar ditugu". Horretarako, sare ezinbestekoa dela pentsatzen dute guztiek. Honela dio Aizpuruak: "Ez da euskal antzerki bat existitzen, hau da, errealitate desberdin asko existitzen dira. Begirada eta espazioak zabaltzean jarriko nuke fokua. Praktika onak zein izan daitezkeen modu kolektiboan adostu, praktikatu eta konpartitzeko eredu bat sortzean. Kapitalismoak elkarren aurka jartzen gaitu eta elkartasuna instituzioei eskatzea ez da aukera bat".

Arteak hartzailearengana iristeko duen potentziala nabarmenduta, Ziarrustak norabideak aldatzeko lanean jarraituko duela azpimarratu du. "Gizartea gaixorik dago eta zaindu eta osatu behar dugu", adierazi du, eta gaineratu ez dituela "intelektualak kalean" nahi: "Uste dut oso tresna inportantea dela eraikuntza pertsonalerako. Gero harritzen gara norbaitek eskopeta bat hartu eta aita, ama edo alaba hiltzen duenean. Izpiritu kritikoa garatu behar dugu gizarte sanoago bat sortzeko, kohesiorako, problemak proiektatzeko eta gizartea aztertzeko". Ziarrustak zera azpimarratu du: "Lekuak galtzen goaz kapitalismoari emateko eta gure gorputza elikagaiekin elikatzen dugun bezala, elikatu behar dugu gizartea".

Arte bizimodu definitzen duten sortzaile hauek garbi dute zergatik eta zertarako sortzen duten. Dinamika batean enkajatzeko beharrak, pastel zati bat lortzekoak, hautu batzuk desbideratzera eraman ditzakete, nahiz eta miserableak izan. "Publikoak sinetsi nahi du oso ondo bizi garela eta profesioa oso polita dela. Bai, polita da, baina ez horregatik. Eta hori onartzea gizartea masturbatzea da", adierazi du Ziarrustak.

Dena den, instituzioen joerak aldatzeko eskaera ahaztu gabe, ereduak sortzen eta eredu izaten jarraituko dute, Guillanek pentsatu bezala, "badago komertzialgintza eta badago motorgintza kultural; motor bilakatzen diren joerak, normalean, arriskuak hartzen dituztenak dira". ●

BABESLEA:

LEZO

EUSKARAGARRI



EUSKARALDIA

Elkar mugituz
egingo dugu

Maiatzaren 15etik 25era



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

“ ”

Ez dut uste Ernairen eta GKSren artean modu zuzenean gatazkarik egon denik jai herrikoietan

Amaiur Egurrola
Ernaiko bozeramailea

Aste Santuan Berriozarren egindako topaketetatik egun gutxira bildu gara Gasteizko Sorturen bulegoan. Hango kontuez jardun dugu apur bat, baina batez ere gaur egun euskal gizartean dantzan diren gaiez aritu gara, Ernaik horien gainean duen iritzian sakontzeko asmotan. Amaiur Egurrolak (Aretxabaleta, 2001) pedagogia ikasketak egin ditu eta 2023ko maiatzetik da Ernaiko bozeramaile.

 XABIER LETONA  DOS POR DOS / ARGIA CC BY-SA

Berriozarren Euskal Herriaren independentzia aldarrikatu duzue jo eta su, baina ez dakit ba independentziaren aldarrikapenak edo autodeterminazioarenak, estatutu berriarenak... indar handirik dutenik ezker abertzalearen egunerokotasunean.

Nik uste dut naziotasuna gure egunerokoaren erdigunean dagoela. Naziotasuna ezker independentistaren izatearen arrazoi nagusia da gaur egun ere. Gazte moduan, lekuko hori hartzeko eta hedatzeko ardura dugu. Herri moduan gure buruaren jabe izan eta erabaki nahi dugu, baina independentzia ere bada estrategia bat herri moduan eskumen gehiago izateko.

“Guk” esaten duzunean, ezker independentistaren beste erakundeez ere ari zarela pentsatzen dut.

Dagoen lekutik erakunde bakoitzak bere funtzioak betetzen ditu, eta gure funtzioa da Euskal Herriko gazteengana iristea eta gai horiei bide ematea askapen prozesuaren barruan.

Baldintzarik ez zegoela eta, azkenean, Berriozarren Aste Santuan bertan behera utzi zenuten preso politikoei buruzko ekitaldia. Zergatik egin nahi zenuten saioa? Zer adierazi nahi zenuten?

Memoria ariketa bat egin nahi genuen, gatazkaren memoria osoa azalera-tu behar baita. Batetik, presoen izaera politikoaz hitz egin nahi genuen; eta

bestetik, gatazka politikoaren muinean dauden arrazoiengatik. Urte luze hauetan bi eskubide ukatu zaizkigu herri moduan: nazio izaeraren aitortza eta autodeterminazioa. Horrez gain, gatazkaren konponbidean gauden honetan, presoen etxeratzearen garrantzia ere mahai gainean jarri nahi genuen.

Aurretik egindako prentsaurrekoan eta topagunean bertan azaldu bezala, hitzaldia eta ekitaldia publiko egin genuenean, Coviteren, UPNren eta PPren bultzadarekin auzitegietatik jarri ziren baldintzekin, ulertzen dugu *de facto* debekatu egin zela. Ekitaldia topaguneko lehen egunean zen, eta polizia betetako baldintza horietan, gu kriminalizatzen saiatu ziren. Egin izan bagenu, hurrengo egunak baldintzatzeko arrisku handia

zegoen. Horregatik esan genuen ez zegoela baldintzarik egiteko, egitasmoa bera aurrera eramateko inongo berme gabe uzten gintuelako.

Zure ustez, euskal gizartean hitz egiten da behar beste presoen gaiaz zuk azaldu duzun ikuspegitik?

Uste dut ezetz. Alde askotatik saiatzen dira kontakizun partzialak osatzen eta inposatzen, eta azken asteetan gurekin gertatutakoa horren adierazle da.

Ernai 2013an sortu zen, ETAk jarduera armatua utzi eta bi urtera. Haurra zinenean ETA eta euskal gatazka gori-gori ziren, gaur egun hori iragana da, nahiz eta arrastoak geratzen diren. Nola bizi duzu zuk garai hura?

Gure belaunaldiak ez zuen garai hura bizi izan, eta Ernai sortu zenean ezker abertzalea estrategia aldatetan bete-betean murgilduta zegoen. Gure belaunaldiak gatazkatik geratu diren ondorioak bizi izan ditu, baina hura sortu zuten oinarritzko arazoak –nazio izaeraren aitortza eta autodeterminazioa–, gaur egun ere hor dira. Beraz, herri moduan oraindik gatazkaren konponbidearen ariketa osoa egin behar dugu. Horrez gain, gaur egun une politiko berri baten aurrean egon gaitezke nazio aitortza eta erabaki eskubideari dagokienez, eta gazte moduan, horiei heltzea dagokigu.

Zergatik diozu nazio aitortzan eta erabaki eskubidean beste fase baten aurrean egon gaitezkeela? Non dira horren zantzuak?

Batetik, estatus berriaren eztabaidak ireki dira, eta bestetik, bada gehiengo sozial handi bat helburu horiekin bat egiten duena. Hauteskundeetan argi ikus dezakegu hori, baina baita mobilizazio sozialean ere, horren adibide da Gure Eskuk ekainaren 7rako Bilbon antolatutako mobilizazio soziala. Nazio bulkada berpizten ari da eta gazteoi dagokigu esparru horretan jauzi bat ematea.

Tira, inkestak inkesta dira, baina horien arabera independentismoarekiko sostengua azken hamarkadetako unerik ahulenean dago.

Ikusi behar da galdera horiek nola egiten diren. Edonola gizartearen zati handi batek aitortzen du Euskal Herriaren nazio izaera hori. Azken urteetako mobilizazio sozialean ikusi da hori, adi-



bidez joan den urteko greba feminista orokorrean: herri akordio zabal bat lortu zen Euskal Herriko hainbat eragile sozialen artean euskal zaintza sistema oinarri hartuta. Gutxieneko soldatarekin ere antzeko zerbitu gertatzen ari da: EAEn dagoeneko bada ekimen legegile

le bat eta Nafarroan ere eztabaida irekitzen ari da. Hortaz, eztabaida horiek ez lirateke posible euskal jendartearen ez balitz nazioarekiko atxikimendurik egongo, eta sentituko ez balitz Euskal Herrian herria beste termino batzuetan eraiki ahal denik.

Naziotasunarekiko herritar askoren atxikimendua badagoela bistan da, baina ahula edo indartsua da?

Esango nuke badagoela eta areagotzen ari dela, aurretik azaldu dudan horixe da adibidea.

300.000 euroko isunei egin behar izan diete aurre Ernaiko 133 gaztek kalean protestak antolatzeagatik. Nola dago auzi hori?

Isunak pertsona bakoitzari eragiten dio, eta beraz, helegiteak banaka aurkeztu behar izan dira. Une honetan helegite horiek Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian daude. Epaiketa bat izan genuen eta behin-behineko emaitza heldu zen: horren arabera, Gasteizen izandako ekimenean ez zegoen desordena publikorik eta Bilboko kasuan ez zen desordena publiko larrik egon. Beraz, Gasteizko kasuan isunak bertan behera geratu ziren –hamabi bat ziren– eta Bilbokoan isunen kopurua jaitsi zen. Epai hori oraindik ez da finkoa, baina bide hori baieztatzen bada, uste dugu gainerako auzietarako aurrekaria izan beharko lukeela. Bere unean esan genuen, isun hauekin Segurtasun Sailak Ernairen aurkako operazio bat abiarazi zuela, eta epai honek adierazten du hori horrela izan zela.

Etxebizitzaren eskasia eta garestitzea arazo handiak dira, bereziki gazteentzat: etxe gehiago egin behar dira? Daudenak hobeto banatu?

Etxebizitzak egon badaude, baina etxebizitza negozioa da gaur egun eta harekin espekulatu egiten da. Etxebizitza eskubidea da, baina gazteok ez dugu bermatuta etxebizitza duinerako sarbiderik; eta eskubidea bada, politika publikoen bitartez bermatu beharko litzateke. Kapitalismoak, dena den, dena negozio bihurtzen du eta hori ere bai. Beraz, politika publikoak egin behar dira horri aurre egiteko, negozio hori mugatzeko eta pertsona ororentzako etxebizitza bermatzeko.

Nolabait esateko, gazteok ezin dugu gurasoen etxetik joan 35 urte arte eta horrek baldintzatzen digu gure gaitasun psikosozialak aurrera eramatea, horrek zentzu askotan mugatzen gaitu. Hala ere, etxebizitzarena ez da gazteok bakarrik daukagun arazoa.

Gizartean, oro har, arrazakeria eta matxismoa handitzen ari direla diote ikerketek. Zuek sumatzen duzue



“ ”

Ez dut uste gazteok duela 20 urte baino

matxistagoak garenik.

Izan ere, gure belaunaldia feminismotik politizatu da, eta horregatik inoizko belaunaldi feministena garela uste dut

halakorik gazteen artean?

Azkenaldian inkesta ugari atera dira eta zabaldu dute gazteok matxistagoak garela, arrazistagoak... Nagusien begirada kontuan hartuta, badirudi gazteok gorakada horien errudunak garela. Ez dut uste gazteok duela 20 urte baino matxistagoak garenik. Izan ere, gure belaunaldia feminismotik politizatu da, eta horregatik inoizko belaunaldi feministena garela uste dut. Balio erreakzionario batzuk denean ari dira hedatzen, Europan ere ikusten dugu hori, baina uste dut hori Euskal Herrian ez dela horren indartsua. Hala ere, gerta liteke feminismoaren ondorioz muga batzuk jarri direla eta sektore batzuetan horiei balio atzerakoiekin aurre egiten aritea. Euskal Herrian gure agenda propioa indartzea dagokigu, zentzu komun feministak lehiatu ahal izateko, eta horretan gazteok zeresana dugu, gure egitekoa da.

Feminismoa aipatu duzula, azken urteetan garai nahasiak bizi dira feminismoaren barruan ere. Zuei eragin dizue horrek?

Euskal Herriko mugimendu feminista beti izan da eremu anitza eta gaur egun ere horrela da. Aniztasun horrek ekartzen du gatazka eta eztabaida batzuk egotea, baina hori aberasgarria da eta ez dut uste bestelako arazorik dagoenik.

Ez dira garai onenak militantziarako. Duela bi urte zuek ere ARGIAN egindako elkarrizketa batean “militantzia likidoaz” hitz egiten zenuten. Nola dago zuen militantzia kopuruz eta animoz?

Hedapen prozesu batean gaude eta Ernai indartzen ari da. Berriozarko Topagunea horren adierazle izan da, edo Donostian egin genuen mobilizazio jendetsua, Tafallakoa... eta *Independentziara* kanpaina 75 herrietara eraman dugu, herriz herri *Independentziara* egunak antolatuta. Jendarteak da likidoa, gero eta ziurtasun gutxiago ditu, egun batek bestera gauzak erabat aldatzen dira, fenomeno berriak ateratzen dira eta horrek, oro har, zailtzen du jendeak helduleku finkoak izatea. Hala ere, jendeak militatu nahi du eta Ernaik, edo militantzia politikoa aurrera eraman nahi duen edonork, asmatu beharko du militantzia nola egokitu garai likido hauetara.

Gurutze frankisten eraistea aldarrikatu izan du Ernaik. Zu Aretxabaletakoa zara, eta handik gertu dago Udalatx mendia. Aurten hango gurutzea eraitsi dute. Horrek eztabaida handia sortu du Arrasaten



eta bailara osoan. Nola ikusi duzu gertatutakoa?

Gurutze frankistek bazuten izaera faxista bat, baina Ernaik ez dauka Arrasaten gertatutakoaz irakurketa zehatz bat, hori beste parametro batzuetan gertatu da: batzuentzat kristautasunarekin lotutako ikur bat zen, beste batzuentzat mendian hildako pertsonen omenez jarritako gurutzea... baina nik ez dut posizionamendu bat horretan.

Energia berriztagarrien eremuan ere eztabaida handia dago gaur egun Euskal Herrian, bereziki eolikoaren eta fotovoltaiakoaren bueltan. Nola bizi duzue eztabaida?

Hasteko, ni ez naiz inongo aditua, eta ez dakit esaten zer tresna eta non behar ditugun. Hori adituei utziko diet, baina trantsizio ekosozialaz hitz egiterakoan, eta hori justua izatea nahi badugu, pentsatu behar dugu nola egiten den eta onuraduna nor den. Euskal Herrian burujabetza energetikoa behar dugu eta energia hori herritarren zerbitzura jarri. Askotan hitz egiten da desazkundeaz, eta argi dugu energia gutxiagorekin bizi beharko dugula. Adibidez, oporretan Maldivetara joatea jasangarria da edo Euskal Herrian geratu behar dugu? Horrek badakar aldaketa kultural handi bat, eta eztabaida sakona behar dugu gure kontsumo moldeak aldatzeko.

Hasi dira festak herrietan, Mugimendu Sozialista eta ezker abertzalearen arteko arazoak, tentsioa auzo eta herritan... Nola aurreikusten duzue arazo hori aurretik?

“ ”

Esan genuen, isun hauekin Segurtasun Sailak Ernairen aurkako operazio bat abiarazi zuela, eta epai honek adierazten du hori horrela izan zela

Garrantzitsua da gaia kokatzea eta jakitea zer gertatzen den. Zer dira jai herrikoiak? Hausnarketa hor dago. Gure ustez, jai herrikoiak herria egiteko espazio bat dira, eta jai herrikoietan lehen lerroan dagoen agentea herri mugimendua da. Ernaik urte luzetan egin du bat molde horrekin. Jai herrikoietan gatazka badago, herri mugimenduekin izango da, baina ez dut uste Ernairen eta GKSren artean modu zuzen batean gatazkarik egon denik jai herrikoien eremuan.

Bistan da gazteen artean lehia handia dagoela Ernairen eta GKSren artean. Arazo ugari, baina, berberak dira gazteentzat: etxebizitza, lan baldintzak eta prekarietatea... ikusten duzu elkar lanerako espaziorik edo hori ezinezkoa da bakoitzak duen ikuspegiarekin? Hemen bi proiektu politiko eta bi helburu desberdin daude. Hori ez da ezer

berria. Gure proiektua da Euskal Herria aske, sozialista eta feminista eskuratzea. Gu nazio askapen mugimendua gara eta, beraz, gure helburu nagusia Euskal Herriaren askapen prozesua aurrera eramatea da, eta ulertzen dugu hori bali desberdinekin loturan egingo dela, ezker abertzaleak urteetan egin duen moduan. Horrek guztiak egiten gaitu desberdin. ●



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezlaio industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



Ane Santesteban

“Ikasi behar dugu ez dela normala izugarrizko mina izatea hilekoarengatik”

Sare sozialetako argitalpen baten bidez, otsailaren 23an, Ane Santesteban txirrindulariak (Errenteria, Gipuzkoa, 1990) endometriosisa daukala iragarri zuen. Diagnostikoak lagundu egin dio ulertzen zergatik batzuetan gaizki sentitzen den bizikletan: “Kisteak aldaka okertzea eragiten zidan eta horren ondorioz, postura ez aurkitzea. Oso okertuta nindoan bizikletan”.

 OLAIA L. GARAIALDE  LABORAL KUTXA

Minak ezinduta, nahi baino lehenago amaitu behar izan du entrenamendua Ane Santesteban txirrindulariak. Laboral Kutxa taldeko kideak, hilekoarekin dagoelarik, endometriosisiaz solastatzeari ekin dio. Kontatu du iazko urtarrilean, umetoki barruko gailua kentzea erabaki zuenetik, “izugarrizko mina” sentitzen hasi zela hilekoarengatik: “Txirringan gaizki sentitzen hasi nintzen, indarrik gabe, eta sintoma arraro pila bat nituen”. Fisioak esan zion obarioaren inguruan atxikidura pila bat zituela eta ez zela normala. 2024ko urriaren 31n, ginekologoak esan zion kiste bat zeukala obarioan eta endometriosisa. Gerora jakin du atxikidurak horren sintoma direla.

Endometriosisa hantura eta mina eragin dezakeen oinaze kroniko bat da. Endometrioia uterotik kanpo sortzen denean gertatzen da; hala nola obarioetan, tronpetan, hesteetan edota kolo-

“Ginekologoak argi esan zidan ez dela sendatzen, baina medikuak esan bezala, pilulek bizi kalitatea eman didate”

nean sortu daiteke. Hilekoa daukaten pertsonen %10ari eragiten dion arren, gaixotasunaren inguruko ezjakintasun handia dago oraindik. Santestebanek, esate baterako, diagnostikoa jaso aurretik ez zekien deus endometriosiaren inguruan: “Lan handia dago endometriosisa ezagutarazteko. Gaiaz hitz egiteko arrazoietako bat gaixotasunari ikusgaitasuna ematea izan da”. Sare sozialen bidez eman zuen horren berri, eta berehala mezu ugari jaso zituen: “Polita izan da komunitate horren babesa sentitzea”.

Gaineratu du oraindik “tabu handia” dagoela hilekoaren bueltan, kosta egiten dela gaiaz hitz egitea eta joera dagoela mina hilekoarekin lotzeko: “Ikasi behar dugu ez dela normala izugarrizko mina izatea hilekoarengatik. Min pixka bat bai, baina horrenbestekoa ez”. Horregatik, uste du horrelako gauzak partekatzea lagungarria dela: “Azkenaldian, bereziki sare sozialetan, ematen du dena polita dela, baina bidea ez da erraza eta denok ditugu arazoak eta oztupoak. Uste dut ederra dela jendeak ikustea pertsona normalak garela”. Hori dela eta, gogora ekarri ditu Demi Vollering txirrindulariak Lieja-Bastogne-Liejan hirugarren sailkatu ostean esandako hitzak: “Esan zuen beste momentu batean hirugarren postuarekin bere buruarekin haserre egonen zela, baina egun horretan pozik zegoela hilekoarekin zegoelako eta izugarri sufritu zuelako”.



Diagnostikoa jaso duenetik ez du entrenatzeko modua aldatu, baina endometriosisa daukala jakiteak lagundu egin dio ulertzen sintomen zergatia. Adibidez, iaz ez zuen bizikletan postura aurkitzen, baina ez zekien eskuineko obarioan zeukan kiste batengatik zela: “Kisteak aldaka okertzea eragiten zidan eta horren ondorioz, postura ez aurkitzea. Oso okertuta nindoan bizikletan. Biomekanikako proba asko egin nituen postura hobetzeko, baina noski, ez nekien zergatik zen”.

Antisorgailuak hartzen dituenetik min gutxiago sentitzen duen arren, hilekoarekin dagoen egunetan min “handia” izaten du. Hori dela eta, batzuetan “zaila” egiten zaio frustrazioa eta ondoeza kudeatzea: “Ez naiz bizikletan ateratzen gustatzen zaidalako soilik, goi mailako txirrindularia naiz. Orduan, oso exijentea naiz eta gusatzzen zait entrenamendu osoa egitea. Hau da, ordu eta erdi egin behar badut, ordu eta erdi egin”. Hala ere,

minagatik, batzuetan uste baino lehenago jaitsi behar izaten du bizikletatik. Diagnostikoa jasotzeak lagundu egin dio hori ulertzen: “Egun batzuetan ezin dut. Gaur adibidez, benetan saiatu naiz luzatzen, baina ezin nuen gehiago, izugarrizko mina nuelako, eta etxera itzuli naiz”.

Endometriosiak ez dauka guztiz osatzeko tratamendurik, baina neurriak har daitezke sintomak baretzeko. Santestebanen kasuan, momentuz, pilulek lagundu egiten diote: “Ginekologoak argi esan zidan ez dela sendatzen, baina medikuak esan bezala, pilulek bizi kalitatea eman didate”. Horrez gain, zoru pelbikoko fisiora eta osteopatara doa eta hanturaren aurkako elikadura jarraitzen du; hala nola antioxidatzaileak, omega 3, kurkuma eta horrelako elikadura osagarriak hartzen. “Momentuz, gauza txikikiekin saiutzen ari naiz, baina iritsiko da puntu bat zeinetan beste zerbait egin beharko dudana”, esan du. ●

GORPUTZKEO ATAL BAT?

“Hankak. Txirrindularitzan ibili naiz nire bitza osoan, eta hankak parterik garrantzitsuena dira”.



“ ”

Haurren jakin-min erotikoa kriminalizatzen, moralizatzen eta patologizatzen dugu helduok

Ludotekan, gazte txokoan, udalekuetan... batzuk musukatzen ari direla, beste hark zakila erakutsi duela eta honakoak gorputzarekiko irainak jaso dituela, hori guztia kudeatzea ez dute erraza hezitzaileek. Adibide praktikoz lagunduta, *Nola landu sexualitatea hezitzaileon egunerokoan* liburuxka kaleratu dute. “Natural hitzaren aterkia askotan erabiltzen dugu, eta sexualitatea naturala da, bai, baina haur edo gaztearen garapen sexuala zein den ere kontziente izan behar dugu”.



MIKEL GARCIA IDIAKEZ



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Liburuxka aurkeztearekin batera, egun osoko jardunaldia antolatu du Oinherri herri hezitzaileen sareak, maiatzaren 16an, Arrasaten. Aitzakia hori baliatuta, liburuxkan parte hartu duten hiru kide elkarrizketatu ditugu: Ibai Fresnedo Moreno sexu-hezitzaile eta Hiruki Larroxa kooperatibako kidea, Lide Galdos Balanzategi Txatxilipurdi aisialdi elkarteko hezitzailea, eta Aitziber Leoz Etxarri Oinherriko kidea (hasi aurretik jakinarazi digu batez ere beste biegi utziko diela hitz egiten).

Haur eta nerabeekin sexualitateaz aritu aurretik, guk geuk helduok nola bizi dugun aztertu beharko genuke, ezta?

Ibai Fresnedo: Curriculum ezkutua deritzogunaren barruan, lehenengo beharrezkoa da helduok behatzea zein den gure motxila propioa, ez garelako neutra-

lak, eta gure gorputzarekiko harremana, desiraren inguruko ideiak, barneraturiko beldurrak eta lotsak... egingo dugun heziketaren parte dira, esplizituki edo inplizituki. Sarri hezitzaileok pentsatzen dugu sexu-hezkuntza dela edukiak transmititzea, baina edukiak baino inportanteagoak dira bizipenak eta ikuspegiak. Eta horrek hainbat galdera bistaraten ditu: zer utzi ziguten irakatsi gabe? Non eta zergatik sentitzen dugu lotsa? Zein dira sexualitateari loturiko gure zauriak, tabu inkontziente nahiz barneratuak? Guk izandako sexu heziketan fokua jartzeak oinarri sendoa emango digu gero haur eta gazteekin lan egiteko.

Aitziber Leoz: Azken finean, maiz gure beldurrak transmititzen dizkiegu haur eta nerabeei, eta garrantzitsua da hezitzaileak eurak hezte, dituzten kezka eta gainerakoetan, erremintak ematea.

Liburuxkan diozueneze, eskolako

sexu-heziketatik harago, hezkuntza ez-formala gune pribilegiatua da sexualitatea modu informalean lantzeko.

Lide Galdos: Testuinguruak ahalbidetuta, sortzen diren harremanak ez dira eskolakoak bezain bertikalak (irakasle-ikaslea), gainera, eurek aukeratuta etortzen dira gure espazioetara, eta hori guztia kontuan hartuta, arduraren bat edo beste dutenean hezitzaileongana jo ohi dute. Nerabeen kasuan, galdera zuzenean etortzen zaizkigu (gogoan dut, adibidez, bere sexu joerarekin galdezka etorri zitzaigun bat) eta lanketa ere zuzenagoa egin dezakegu. Haurren kasuan, 3-12 urteko umeak hartzen dituen ludotekan, adibidez, lanketa transbertsalagoa izaten da, material eta ikuspegi ezberdinak partekatuz, gorputz adierazpenari lotutako jolasak proposatuz... eta adin horietan, haurrak baino, gurasoak izan ohi dira kezkatuta etortzen direnak.

Ezker-eskuin: Aitziber Leoz, Lide Galdos eta Ibai Fresnedo. →





A bai? Zer nolako kezkekin?

L. Galdos: Esaterako, behin guraso bat etorri zitzaigun, bi haur ikusi zituela (ez ludotekan, baina bai ludotekara etor-tzen zirenak) ezpainetan pa ematen, eta arduratu egin zen, egoera hori zelan gertatu zen ez zekiela (baimena tar-teko) eta ea ongi ote zegoen galdezka.

Hain justu, liburuxkara ekarri duzuen egoera erreal bat da haur batzuk "egia ala erronka"-ra jolasten ari zirela ludotekan eta elkarri musuak emateagatik gurasoak kezkatuta etorri zirela. Hezitzaileak zer egin behar du jolas horren aurrean? Eta familiekin?

I. Fresno: Sekulako helduzentris-moa dago, ez bakarrik hezitzaileen artean, baita guraso eta familiek sexualitatea ulertzeko duten moduan ere. Helduon betaurrekoetatik egiten dute irakurke-ta, sakondu gabe bizi-etapa bakoitzean gizakion garapen sexualari lotuta ditugun ezaugarri berezkoetan, eta justuki haurtzaroan ezaugarri horietako bat kuriositatea da, berdinen arteko harremanen sendotzea eta auto-esplorazioa.

“ ”

Hezitzaileon erantzun automatikoa beti da moztea, eta horrek ekartzen du sexualitatearen adierazpen erotiko publikoak lotsagarritzat ulertzea eta haur eta gazteak autoerrepresioan eta autozentsuran hezte

Ibai Fresno

Hiru elementu horiek ekartzen dute haurrak halako jolasetan aritzea, eta jolas organikoak dira, nahiz eta helduok beti alarma aktibatu, jolas horren atzean ikusten dugulako ondorengo urratsa

izango dela genitalekin jolasten hastea edo koitoa praktikatzeta. Helduon logika erotiko berdina txertatuta, arrisku hori aurreikusten dugu, baita bortxaketa edo abusurako arriskua ere, baina arazoa helduon ikuspegia da. Berrito ere lehenengo galderara itzultzen gara, helduok jaso dugun sexu-hezkuntzara.

Kasu honetan zer egin? Lehenengo, plazeraren eta gozamenaren aitortza; jolasten ari badira, jolas gisa ulertu behar dugu, eta ez dugu epaitu behar, jolasak balio du, besteak beste, helduon mundu sinbolikoa barneratzen ikasteko, mugak eta desirak identifikatzeko. Utzi beharko genieke "egia ala erronka"-ra jolasten, esplorazioari loturikoetara jolasten, hain justu jolas horien atzean helburu hezigarriak daudelako, haurrek eurek jakin ez arren. Jakina, ikusiz gero botere-abusuren bat edo indarkeria zehatzen bat, esku hartu, baina bestela, utzi libre, zeren hezitzaileon erantzun automatikoa beti da moztea, eta horrek ekartzen du sexualitatearen adierazpen erotiko publikoak lotsagarritzat ulertzea eta haur eta gazteak autoerrepresioan eta autozentsuran hezte.

Momentu horretan libre utzi, baina gero gaia lantzeko moduak proposatzen ditu liburuxkak.

I. Fresnedo: Gai ugariz hitz egiteko aukera ematen duelako: harremanei buruz, maitasuna ulertzeko moduez, adierazpen afektiboez eta horien atzean dauden muga eta arriskuez... Horretarako, hezitzaile gisa gauza izan behar dugu identifikatzeko musu soil batek atzean dituen elementu sinboliko, kultural eta fisiologiko guztiak. Eta haurrekin hausnartzeko modurik onena galderak egitea da, pentsaraztea.

Musu ematetik koska bat harago, irakasle batek behin aipaturikoa gogoratu dit: umeak elkarren gorputzak ukitzera, deskubritzera eta marraztera jolasteagatik, guraso larrituen bisita jaso zuela.

I. Fresnedo: Beste behin, helduak ari gara desira eta jakin-min erotiko hori kriminalizatzen, moralizatzen, patologizatzen; helarazten dizkiegun mezuak sarri dira “hori ezin da egin”, “hori lotsagarria da”, ikuspegi ezkorretik, alarmatik eta debekutik. Ulertu behar dugu norbere genitalak eta besteenak ukitzea haurrek duten bulkada bat dela eta ziurrenik oraindik ez dituztela nahikoa erreminta eskuratu, adibidez mugak errespetatzearen inguruan; hori aldatzen joango garela, baina ez dugula moztu behar, bestela moralizazioan erortzen garelako.

Liburuxkan jaso duzuen beste egoera erreal bat: haurrak zakila erakutsi du eta denetarikoa erreakzioak izan ditu inguruan.

L. Galdos: Ibaik dioen moduan, alarmismoan jausi barik, lehenengo erreakzioak eragina duelako haurrak jasoko duen horretan, momentuko esku-hartzetik harago sinesten dugu lanketa transbertsalagoetan eta patxada handiagoz egiten direnetan. Ume horrekin, adibidez, intimitatearen inguruko lanketa egin dezakegu ondoren. Testuingurua gakoa da: ez du konnotazio bera umeak komunean lagun batekin pixa egiten ari dela barrabilak bistan ukitzeak, edo arreta eskuratu nahi duelako denen aurrean ludotekan prakak jaisteak, lanketaren fokua ez da berdina izango.

Errazago imajinatzen dugu mutikoa ipurdia eta zakila erakusten, neska alua eta ipurdia erakusten baino.

I. Fresnedo: Genero arrakala agerikoak

“ ”

Esan nion: ‘Niri ez dit minik eman zuk niri potola deitzea, min eman dit nire gorputza erabiltzea besteek barre egiteko eta zu erdigunean kokatzeko’.
Hezitzaile gisa, momentu zaurgarria izan zen niretzat

Lide Galdos

baita. Biluztasun hori ez da berdin ikusiko, ez berdinen artean, ez helduon partetik ere. Biluztasunetik harago, masturbazioarekin, sexu parktikekin... genero arrakala eta desberdinkeriak agerikoak dira eta jorratu ditugu liburuxkan.

Biluztasunari lotuta, udalekuetako monitore batek behin kontatu zidan haurrek biluztasuna natural bizi zezaten (lotsak hartuta zeudelako, pizsinarako aldatzen toalla gora eta beheara) bera ere denen aurrean biluztu zela, bainujantzia janzteko. Monitoreak gizona da. Gaur egun hala jokatu ahaliko luke?

I. Fresnedo: Ziurrenik, beste paradigma eta errealitate batean bestelakoa litzateke erantzuna, baina egungo errealitatea ezagututa eta rol profesional batetik ari garela kontuan hartuta, arriskutsua iruditzen zait. Haurrek biluztasunarekin duten harremana naturalizatzea eta helburu pedagogikotzat hartzea inportantea da, baina uste dut “natural” hitzaren aterkia askotan erabiltzen dugula oso argi ez dugunean zer egin behar dugun eta sexualitatearekin oso jarrera irekia dugunean. Sexualitatea naturala da, bai, baina garapen sexuala zein den ere kontziente izan behar dugu eta garapen sexuala oso lotuta doa adinari, generoari, klase sozialari... Horri gehitzen badiogu hezitzailea heldua izate hutsagatik eta gizon izate hutsagatik botere harreman batetik abiatzen dugula egoera hori, ez dut egoki ikusten heldu bat haur talde baten aurrean biluztea, eta ez biluztasunagatik beragatik, baizik eta biluztasun horren atzean

dauden sinbolismo guztiengatik. Gaia lantzeko, zuzenean biluztea baino interesgarriagoa iruditzen zait biluztasunaz hitz egitea.

Naturaltasunaren izenean, esaterako, haur txiki guztiak hondartzan bertan biluzten eta aldatzen ditugu, ez ditugulako gizaki sexuaturtzat, aingeruak bailiran, baina aintzat hartu behar dugu indibidualtasuna, eta haur bakoitzaren bizipenetara jo beharko genuke. Haur batzuei lotsa sorrarazten die edota gaizki bizi dute publikoki hain gordin biluzaraztea.

Biluztasuna ezinbestean dago lotuta gorputzari. Loditasuna, luma izatea, konplexuak... Gorputza zenbateraino bizi dute nerabeek lotsatik eta gatazkatik?

L. Galdos: Gaur egun, gainera, sare sozialek hartu duten indarrarekin eta dugun gorputz eredu hegemonikoen zaparradarekin, nerabeek eredu ezberdinak falta dituzte. Horren adierazgarri da elikadura-nahasmendu kopuru handia.

I. Fresnedo: Hezitzaileon ardura da haiek pentsatzen jartzea zein gorputz hartzen diren desiragarritzat gure gizartean. Zein punturaino gaude prest gure zaurgarritasun propioak gazteekin elkarbanatzeko? Zeren berriz ere nerabezaroa kriminalizatzen ari gara konplexuekin lotzen dugunean, baina konplexuak denok dauzkagu. Hezitzaileok bagara haien erreferente, eta gure konplexuak partekatzea eta konplexu horien atzean dauden mekanismo eta dispositiboak mahai gainean jartzea inportantea da.

Ufa, zeinen ariketa zaila, ezta?

Zaurgarri agertzea, zer eta seguruena ezizenen bat asmatuko dizuten nerabeen aurrean.

I. Fresnedo: Bai, gogorra da, baina hezitzaileok askotan gure zilegitasuna oinarritzen dugu plano kontziente, kognitibo eta moraletik abiatuta, eta aldiz, gazteengana plano emozionaletik hurbiltzen garenean gehiago konektatzea lortzen dugu. Ultraeskuina horretan ari da: lotura emozionalak sortzen ditu eta gero plano ideologikora eramaten ditu. Gu ez bagara zaurgarri azaltzen, haiek ez dira zaurgarri azalduko, eta zaurgarri azaltzen ikasi behar dute, horrek egingo dituelako indartsu eta ahaldundu.

L. Galdos: Haurrek eta nerabeek gorputzaren gainean duten presioa dugu hezitzaileok ere. 7-8 urteko haurra eto-

rri zitzaidan, beste haur batek “potola” deitu zidala esatera. Jakitun naiz lodia naizela, horren inguruko lanketa egin daukat, eta erabaki nuen momentuan bertan ez joatea haur harengana, denbora hartu nuen zer esan pentsatzeko. Gerturatu nintzenean, nahiz eta denek pentsatu errieta egitera nindoala, denen aurrean haurra fokupean jarri ordez berarekin solastatu nintzen eta galdetu nion ea zergatik esan zuen hori. Ez zekiela. “Beharbada gainerakoak barrez jarri eta taldeko arreta deitzeko?”, esan nion, eta baietz adierazi zidan. “Niri ez dit minik ematen zuk niri potola deitzea, min ematen didana da nire gorputza erabiltzea besteek barre egiteko eta zu erdigu-nean kokatzeko”, esan nion, eta eskemak apurtu nizkiola uste dut. Hezitzaile gisa kanpora begira beti fuertegertu arren, momentu zaurgarria izan zen niretzat, baina saiatu nintzen buelta ematen eta erantzun nahi nion horretan zentratzen.

Liburuxkan bildu dituzuen beste egoera errealetako batzuk generolei lotuak dira: mutilek ez dute negar egiten, ez dituzte azkazalak margotzen... Ziurrenik, teoria entzuna dute; zein da zuen teknika, diozuen txapa teoriko eta politikoki zuzen gisa ez hartzeko?

L. Galdos: Egun bateko txaparekin pasotuz egingo dute. Nik bi une bereiziko nituzke. Batetik, halako erasorik ematen bada edo haurren bat ez badago eroso jarrreraren batengatik, momentuko esku-hartzea beharrezkoa da, haur-txokoa edo ludoteka denentzat espazio ahalik eta seguruena izan dadin elkarbizitzako arau eta mugak bete behar direlako. Hezkuntza ez-formala gozamenarako espazio askea da, baina denak ez du balio. Bestetik, lanketa poliki-poliki egiten da, transbertsalki, dela hainbat material eta jolas erabilita, ludotekara datozen eredu eta gorputz ezberdinetatik, sortzen diren elkarbizitzaketa eta gogoeta uneak baliatuta... eta hortik sortzen dira gainera konexioak.



“ ”

Naturaltasunaren izenean, haur txiki guztiak hondartzan bertan biluzten eta aldatzen ditugu, ez ditugulako gizaki sexuatzat, baina batzuek gaizki bizi dute

Ibai Fresnedo

“Denak ez du balio”, diozu. Dena den, ez epaitzea da liburuxkako esku-hartze denetan edo ia denetan ageri den gomendioa.

L. Galdos: Ez epaitzea diogunean adierazi nahi dugu hezitzaileok kontziente izan behar dugula zein posiziotik begiratzen dugun haur edo gazteak izan duen jarrera. Egoera jakin horrek he-

zitzaile gisa nola eragin didan, adibidez, zerikusia izango du nire esku-hartzean. Zaila da jarrera bat ez epaitzea, baina hezitzaile gisa kontziente izan behar dugu epaiketa hori nondik datorren. Ikusi behar dugu zein den testuingurua eta saiatu behar dugu pertsona horren egoera ulertzen, gure helduzentrismotik sarri bihurtzen garelako “hau ondo dago” eta “hau ez” ebazten duten moralistak, harago joan gabe.

I. Fresnedo: Epaiketa nahi-ko automatikoa da, baina epaiketak berak ez du ezer eraldatzailerik ekartzen, ez du haien jokabideetan aldaketarik ekartzen. Hezkuntzan diogu jarrerak eta jokabideak ezberdintzea oso garrantzitsua dela. Jarrera da gure mundu ikuskeratik dugun posizioa, irekiagoa edo itxiagoa, balio batzuetan ardaztua, eta jarrera horren arabera jokabideak ditugu. Nerabeen jokabideak aldatu nahi baditugu, jarrerak aldatzean

jarri behar dugu indarra. Epaia egiten dugunean, automatikoki jokabide hori aldatzea nahi dugu, baina hori oso zaila da, balioetara eta erroetara jo behar dugu, eta erro horiek batez ere jarrreretan daude; jarrreretan eragitea lortzen badugu, jokabideak aldatuko dira, adin horretarako jarrerak dagoeneko erabat baldintzatuta daudelako ezaugarri sozial eta kulturalengatik. Informazioa, ideiak eta ereduak behar dituzte.

Haurtzaroan, aldiz, sexualitateari dagokionez jarrerak oinarritzen dira inpultsu sexualetan, baldintzapen sozialetan baino gehiago. Sexualitatearekiko jarrera irekia dute, esploraziorako gertu, eta beraz, jokabideetan zentratzea gakoa da, haien kasuan jokabideak garatzea behar dugulako: arau batzuk barneratu, mugak identifikatu...

A. Leoz: Liburuxkan benetako adibide bat ageri da: nerabe batek liatzen ari diren beste bi grabatu ditu mugikorrarekin, eta lagunartean zabaldu du bideoa. Egiten ari dena ez da legala, baina “egiten ari zarena ilegal da” mezutik harago, debekuaren, zigorraren eta epaiketaren pedagogian oinarritu beharrean,

bestelako lanketa bat proposatzen da, “zergatik ez nituzke grabatu behar” horren inguruan gogoetatzeko.

Nola ligatzen dute gaur egungo gazteek? Zerbaitek arreta eman dizue?

L. Galdos: Sare sozialak asko erabiltzen dira ligoteorako, dinamika horrek dakarren guztiarekin. Nahi duzun moduan agertzen zara hor, errealtatearekiko distortsionatua ere izan daiteke, eta harremanaren abiapuntua hori da askotan.

I. Fresno: Gainera, presioa areagotu egiten dute sare sozialek. Gazte batzuk euren gorputza, mugak eta desirak oraindik argi ezagutu gabe hasiko dira sexua esplizituki praktikatzeko (gehien-koa, esango nuke), eta beste batzuk errudun sentituko dira, esperientziadunak ez izateagatik edo haiengandik espero diren rolak ez garatzeagatik. Batez ere, mutil heterosexualek artean.

Pornoa ezin utzi aipatu gabe. Egungo haur eta gazte gehien-gehienek kontsumitu(ko) dutela jakitun, zer egingo zenukete, adin bateko eta besteko haur edo nerabeak pornoa

“ ”

Zaila da jarrera bat ez epaitzea, baina hezitzaile gisa kontziente izan behar dugu epaiketa hori nondik datorren, sarri bihurtzen garelako ‘hau ondo dago’ eta ‘hau ez’ ebazten duten moralistak, harago joan gabe

Lide Galdos

ikusten harrapatuz gero?

L. Galdos: Aitzakia litzateke lanketarako tresna moduan erabiltzeko.

I. Fresno: Hasteko, lehen esandakoa, ez ginateke eskandalizatu behar, helduon lehenengo erreakzio hori delako heziketarik garrantzitsuenak. Pornoaren kontsumoa egongo da eta hala onartu

behar dugu. Kontsumo hori zigortzen, hesiarazten edo moralizatzen badugu, epaitzen badugu, mezua da ez dela onargarria eta ez dute gurekin horren inguruko ezer partekatuko, dela desinformazioa, dela erru sentimendua. Bestetik, adina kontuan hartu behar dugu, pornoa helduontzako materiala delako, eta 8-9 urteko haur batek ikusten badu, sarri ez du ulertuko ikusten ari dena, inpaktu bisual hutsa izango da, beldurra ere eragin diezaiokiena, oso praktika bortitzak ikus ditzakeelako, hizkera arraroa... Shock erotikoa utzi ditzake haurrak. Lehentasuna da haurrari ulertaraztea ikusi duena ez dela egiazkoa eta ez dela bere adinerako eduki bat. 12-14 urteko nerabearekin, ordea, galdera ez da zer ikusi duen, hori ikusita zer eraikitzen ari den baizik, zein ondorio atera dituen: zer ulertzen duen sexu harremanez, desiraz, botereaz, baime-naz, plazeraz...

Generoaz ari garelarik, mutil batek pornoa ikusten duenean sarri ulertzen du prestakuntza modura (zer egin ikasi behar du, pornoaren bidez), eta neskak ikusle pasibo gisa ikusi ohi du (zer espero dute gugandik, nola izan desiragarria). ●

V. BERTSO SARIKETA
AIXITA SARIA 2025


Maiatzak 17, larunbata, 17:30
KULTUR ETXEA - IRURTZUN

Gai Jartzailea: Zigor Gortzia Arregi "Zion"

					
IOSU SANJURJO ALTZURI (LESACA 1993)	ARDA ARRIZUBIETA BARREDO (GASTEIZ 2001)	ENDIKA LEGARRA NUIN (IRUÑEA 1996)	ANE ZUAZUBISKAR INARRA (ARRASATE 1997)	AITOR SERVIER ETCHECHURI (AZKAINE 1997)	JOSUNE ARAMENDI PEREZ (MARKINA- XEMEIN 1994)

AIXITA SARRI SARRI
KUXAR SARRI SARRI

INOR EZ DA ILEGALA



Inor ez da ilegala proiektuak webgune propioa dauka hemendik aurrera.

Leiho berri bat injustizia bistaratzeko

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez dut gaur egun kamiseta edo arropa aldarrikatzaile gehiegi ikusten soinetan. Akaso iraganeko nire iruditerian gehiago dira, orduan ere benetan zirena baino, baina horixe dut sentsazioa. Izan zen bolada bat, esango nuke bi garaian tartekoa, hasi ginena trapu horiek lotarako edo kirola egiteko erabiltzen. Orain, ordea, paseatzera ateratzen gara 8.000koak egiteko moduan jantzita eta hor ez du lekuri presoa, AHTak edo erraustegiak. Dena den, bada esaldi bat behin eta berriro gurutzatzen zaidana bidean; poltsetan, jertsetan, kamisetetan: inor ez da ilegala.

Kalean ez ezik, orain Interneten irekitako leiho berrian zabalduko da ARGIAk eta Mbolo Moya Doole elkarteak duela zazpi urte abian jarritako proiektuaren inguruko guztia, webgune propioa sor-

tu baitute: inorezdailegala.eus. 2018an etxe honetako Mikel Garcia Idiakez kazetariak Bilboko kale-saltzaileei egindako elkarrizketa baten harira sortu zen asmoak ibilbide oparoa darama. Kaleko saltzaileen elkarte ekonomikoki lagundu eta injustizia bistaratzeko sortu zituzten "Inor ez da ilegala", euskaraz eta "Amul been nit ku leegalul" wolofez idatzitako lehen kamiseta gris haiek. Ordu-tik hona hainbat produktu atera dituzte eta salmenta bakoitzarekin egindako diru-ekarpenarekin lehenengo bost urteetan jada 35.000 euro bideratu dira Mbolo Moya Doole elkartera.

Proiektuak hartu duen dimentsioa ikusita, espazio propio bat eskaini nahi izan zaio eta sarean irekitako atari berria baliatuko da hemendik aurrera Inor ez da ilegalaren inguruko informazio guz-

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“”

Ederra delako lurraren taupadek markatutako erritmoan bizitzea

Baztandik Miren

“”

Hogei urte inguru dira ARGIAko harpide naizela, eta beti eman izan dizkidazue ikuspuntu desberdinak

Tokiotik Shok

“”

Euskaldun denok egin beharrekotzat genukeena dela deritzodalako


Bilbotik Iñakik

tia eguneratuta mantentzeko, proiektuaren berri emateko eta etorriko diren produktu berriak promozionatzeko.

Orain arte bezala, azoka.argia.eus helbidean produktu hauek erosita proiektua babesteko aukera izango du nahi duenak, baita sortu berri den webgunean ere. Eta aurrez aurreko erosketa nahiago duenak webgunean badu kaleko salmenta puntuak zeintzuk diren ezagutzeko aukera 'Erosi kalean' atalean aurkituko duen mapan.

Legeak baietz esaten jarraitzen duen bitartean, guk ezetz esaten segituko dugu ahal dugun leku guztietan; inor ez dela ilegala. Esango dugu kalean, etxean, lantokian, eskolan, eta hemendik aurrera, inorezdailegala.eus atarian ere bai. ●

Desberdinkeriaren jatorriaz



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Indo ibaiaren harana, duela 5.000 urte inguru. Mohenjo-Daro hiriak 35.000 biztanle inguru zituen eta, berriki *PNAS* aldizkarian argitaratutakoaren arabera, Giniren koefiziente oso baxua zuen, 0,22koa –koefiziente horrek gizartearen desberdintasun ekonomikoa neurtzen du, errentaren banaketaren kontzentrazio mailaren bidez, eta 0 eta 1 arteko balioak erabiltzen ditu-. Mohenjo-Daroko datuak adierazten du, komunitate horrek berdintasun maila altuari eutsi ziola Neolitiko iraultzaren ondoren ere, orain arte uste izan dugunaren kontra. Jean-Jaques Rousseauk *Gizakien arteko desberdintasunaren jatorriaz* (1775) lanean mahaigaineratu zuen hipotesia indartu besterik ez da egin azken mendeetan: nekazaritzak komunitateen sedentari-zazioa, hirien sorrera eta soberakinak eragin zituen eta, horrek, ezinbestean, desberdintasun sozial eta ekonomikoak.

Baina Mohenjo-Darorena ez da salbuespen hutsa. *PNAS* aldizkarian argitaratutako lanean, Gini proiektuko 11 ikerlanek egin dute bat. Guztira, azken 10.000 urteko 1.000 aztarnategi inguruko 53.000 etxebizitza aztertu dituzte, errentaren gaineko daturik ezean, etxebizitzaren tamaina hartu baitute oinarri. Chicagoko Field Museoko antropologo Gary Feinman-en hitzetan. “Etxebizitzaren tamainak agian ez du ondasunen diferentziaren magnitude osoa islatzen, baina desberdintasun ekonomikoaren adierazle sendoa da”.



Duela 5.000 urte Mohenjo-Daro hirian gizarte-desberdintasun koefizientea oso baxua zela ondorioztatu dute.

Ikerlan zabalaren lehen ondorio nabarmena emaitzen aniztasuna da, alegia, desberdinkeriaren garapen bateratu eta linealik ez zela egon. “Zenbat eta gizarte konplexuagoa, orduan eta desberdintasun handiagoak daudela uste izan dugu luzaroan, baina orain ikusi dugu ez duela zertan horrela izan” dio Feinmanek.

Durhameko unibertsitateko Dan Lawrence-ren ustez, aldiz, ondorioz interesgarriena beste bat da: “Nekazaritzaren sorreraren eta desberdinkeriaren hazkundearen artean denbora-desfase nabarmena dago”. Aztertutako komunitate batzuetan ondasunen kontzentrazio desorekatua nekazaritza garatu eta

berehala gertatu arren, ikertutako kasu gehienetan desberdinkeriak denbora asko behar izan zuen gora egiteko, milaka urte zenbait kasutan. Ikerlanetako baten izenburuak garbi adierazten du hori: *Ondasun-berdintasunezko 100 belaunaldi trantsizio neolitikoen ondoren*.

“Atzerapen” horri ez diote oraindik azalpen garbirik eman, baina Lawrencek tradizioaren garrantzia nabarmentzen du: “Ehiztari-biltzaileen komunitateen berdintasunezko arau kulturalak luzaroan eutsi zioten, eta litekeena da horri esker lehen nekazariak berdinketa-mekanismo sendoak izatea desberdinkeriari bidea oztopatzeko”. ●



L.V. GOLOVANOV ET AL.

Neandertalen sofistikazioa

Geroz eta gehiago dira neandertalek uste baino gaitasun kognitibo aurreratuagoak zituztela adierazten duten ikerlanak. Azkena *Journal of Archeological Science* aldizkarian argitaratu da, eta 2003an Errusiako Mezmaiskaya kobazuloan aurkitutako hezurrezko lantza-punta du hizpide. Mikroskopia, tomografia eta espektroskopia tekni-

kak erabiliz ondorioztatu dute ziurrenik bisonte hezurra erabili zutela eta harrizko tresnekin zorroztu zutela. Ehizarako tresnak 80.000-70.000 urte ditu, hau da, Europara duela 45.000 urte iritsi zen “gizaki modernoa” baino askoz zaharra. Horrek esan nahi du neandertalek beren kabuz asmatu zutela pieza sofistikatua, eta ez beste inor imitatzen. ●

IKASTETXEETAN ELIKADURA OSASUNTSU ETA
JASANGARRIA SUSTATZEKO ESPAINIAKO DEKRETUA

BESTE BEHIN ERE... EZER EZ ALDATZEKO



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

Espainiako Gobernuak Eskola Jantokien inguruko Errege Dekretua atara berri du, Euskal Herri Hegoaldeko eskola jantokien kudeaketan eragingo duena. *Spoiler:* elikadura sistema osasuntsu eta jasangarri bat garatzeko inolako asmorik erakusten ez duen dokumentua da.

Eskola Jantokien dekretu horren arabera, ikastetxeetako janarien eta edarien eskaintza, funtsean, elikagai freskoek, sasoiokoe eta kate motzetatik eratorritakoe osatuko dute. Ondo. Baina, "funtsean" kontzeptua nola neurtzen da lizitazio batean? Izan ere, fruta eta barazkien %45ak soilik behar du sasoiakoa izan. Eta sasoiakoa izanik, ez da inolara ere kate motza neurtzeko irizpiderik ezartzen.

Dekretuak baita ere esaten du elikagai ekologikoek, gutxienez, erosketa kostu osoaren %5 osatuko dutela. Horrekin, argi gelditzen da lizitazio erabakietan prezioa dela indar gehien hartzen duen irizpidea. Aitzitik, elikadura osasungarri eta jasangarria lortzeko baldintza nagusietako bati, ekoizpen-ereduari, ez zaio garrantzirik ematen.

Gauza bat bai aitortu behar zaio dekretuari. Lehen aldiz, debekatu egiten du (kontzeptu argia eta neurgarria) edari azukredunak eta energetikoak eta opil industrialak saltzea ikastetxeetako kafetegietan eta salmenta makinetan. Pozgarria da ikustea nola hartu den kontuan nutrizioari eta haur-obesitateari buruzko duela 20 urte baino gehiagoko ebidentzia zientifiko andana.

Orain urte bete eskas, Asunek Behatokitik eskola jantokien inguruko hausnarketa egin genuen. Garai horretan ibiliko



EDUARDO ESKARTZAGA HLHI

ziren baita ere EAEko ikastetxe publikoetako jantokien araudi berria sukaldatzen. Irailean argitaratu zuten araudi horretan, ez dute inongo maniobra marjinarik uzten. Bertan adierazten den bezala, "sektoreko enpresak kontratatuko dira jantoki zerbitzua emateko". Hau da, eredu des-zentralizatuak sustatu beharrean, berriz ere, etekin ekonomikoetan oinarritzen den elikadura eredu globalizatuaren inguruko enpresei mesede egiten dion araudi bat ezarri dute.

Duela hamar bat urte Gernika, Urduña, Laukariz eta Markinako eskoletan hasitako proiektu pilotuek erakutsi dute kudeaketa deszentralizatuak tokiko elikagaiak eta elikagai ekologikoak hornitzeko eta prestatzeko ahalmena duela, eskoletan benetako elikadura osasungarria eta jasangarria ezartzeko. Eta "proiektu pilotu" kontzeptuaren definizioak dioenez, "eskala handian ezarri aurretik, ideia bat eskala txikian froga-

tzeko egitasmo bat da". Beraz, eskala handira pasatu beharko genituzke... hala ere, badaezpada, hori saihesteko araudi bat ezarri digute...

Azpimarratu nahi genuke baita ere Eusko Jaurlaritzak apirilean aurkeztutako *Belaunaldi Erreleborako Estrategia Integrala* ez datorrela bat *EAEko ikastetxe publikoetako eskola-jantokien araudia*-rekin. Politika publikoen garapenean elikadura sistemaren ikuspegi holistikoa eta integrala alde batera uzten dela erakusten duen beste adibide bat da. Elikagaien erosketa publiko batek sortzen duen eskariak ekoizle gehiago instalatzea sustatu beharko luke. Era berean, lehen sektore agroekologiko indartsu bat izango da elikadura osasungarria eta jasangarria eskola jantokietan bermatzeko gaitasuna daukan eredu. Honek guztiak, berriz ere, gure politika publikoen norabidea zalantzan jartzera garamatza. ●

A ZE FAUNA!

KONDAIRETAKO PIZTIA KANTAURI ITSASOAN



IRATI DIEZ VERTO



LYCANTHROP / GOODFON.COM

Kaxalotea edo zeroia (*Physeter macrocephalus*) munduko horzdun zetazeo handiena da, eta baita munduko horzdun animalia handiena ere. Beheko barailan soilik ikusten zaizkio hortzak, baina bakoitzak kilo bateko pisua izan dezake. Izatez, ez dago oso argi zertarako erabiltzen dituen (arren artean lehiatzeko, agian), ez baitirudi beharrezkoak dituenik elikatzeke. Txipiroiz eta hainbat arrain espeziez elikatzen da, baina zurrupatu egiten ditu murtzikatu baino. Bere dieta eta bizimoduagatik, euskal kostalde bizitoki ederra da erraldoi hauentzat.

Kantauri itsasoaren hondoak badu berezitasun bat Euskal Herriaren parean; oso gertu ditugu ur sakonak. Itsas hondoak 100 metroko sakonera izatetik, maldan behera 2.100 metroko sakonera hartzen du. Hori Matxitxako parean iparralderantz joanda 7 km-tara gertatzen da soilik, eta gehienez, Orio parean 20 km-tara. Ezaugarri horrek eragiten du ur sakoneko espezieak kostaldetik oso gertu aurkitzea, eta bertan elikatzen dira, besteak beste, kaxaloteak. Sakonera horietan gertakari ikaragarriak jazotzen direla badakigu. Kaxaloteek txipiroi erraldoiak ehizatzen dituzte, 14 metroko luzera izan dezaketen piztiak, eta hauekin izaten dituzten lehien lekuko dira azalean ageri zaizkien bentosen markak.

Kaxalote batzuk urte osoan euskal kostaldean bizi direla uste da, baina animalia hauen bizilekuak ez dira

KAXALOTEA *Physeter macrocephalus*

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna.

NEURRIA: Arrek 15-18 m eta 35-45 tona; emeek 11-13 m eta 14-18 tona.

NON BIZI DA? Munduko itsaso guztietan.

ZER JATEN DU? Sakonera handietako txipiroi eta arrain espezieak.

KOMUNIKAZIOA: Kaxaloteen bokalizazioak animalien erreinuko ozenenak dira. Espezie honen komunikazioa pil-pilean dagoen gaia da.

BABES MAILA: Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren Zerrenda Gorrian "Kaltebera" izendatua.

erraz auresaten. Oro har, emeek talde egonkorak sortzen dituzte, urteetan mantentzen direnak, eta haiekin batera bizi dira kaxalote kume eta gazteak. Hamarkada bat taldean igaro eta gero, arrek taldea uzten dute, eta udako hilabeteak iparraldeko ur hotzetan pasatzen dituzte, elikatzen. Ar gazteek batzuetan "ezkongai taldeak" sortzen dituzte, baina ar helduak bakartiak izan

ohi dira. Udazken partean, ordea, emeak eta arrak batu egiten dira ugaltzeko eta negua eremu epelagoetan igarotzeko.

Historiako kaxalote ezagunena *Moby Dick* izango da seguruenik, Ahab kapitainaren arerio amorratua. Eleberri horrek ederki erakusten du garai bateko kaxaloteen ehiza. Buruan duten espermazeti organoa oso preziatua izan zen XVIII, XIX eta XX. mendeetan. Organo horrek gordetzen duen gantzak flotazioa kontrolatzen laguntzen die kaxaloteei, baina gizakiontzat ere oso erabilgarria zen olio, argizaria edo xaboia ekoizteko. Nazioarteko Balea Batzordeak 1986an kaxaloteen ehiza komertzialean debekua ezarri zuen. Ehizatu zen bitartean, populazioak %67 murriztu zirela kalkulatu da, eta espeziea bere onera itzultzen ari da oraindik.

Ugaztun hauek duten beste berezitasun bat ekokopakena da. Zetazeo horzdun guztiek bezala, kaxaloteek bigarren ezpain pare bat dute kopeta barruan, eta ezpain horiekin ultrasoinuak sortzen dituzte. Soinu horien oihartzunak jasotzen dituzte, eta hala, ingurunean kokatzen dira eta harrapakariak hautematen dituzte ur sakoneko ilunpetan. Baina ultrasoinuek gain, kaxaloteak ere asko ikertu dira haien komunikazio gaitasunengatik. Duela gutxi jakin izan da animalia hauek alfabeto moduko bat erabiltzen dutela elkarrekin komunikatzeko, eta orain alfabeto hori deszifratu nahian dabilta. Halako animalia txundigarria daukagu gure kostaldetik kilometro gutxitara, iluntasunean igieran. ●

BASO BAT DA DOLAREA, BAITA SAGARDOA ERE



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Aurten bai urtea da. Sagar urtea izango da aurtengo hau (*Malus domestica*). Eta baialdia behar bezala agurtu eta baliatzeko, besteak beste, dolareak gertatu beharko ditugu. Gaur egun dolare gehien-gehienak metalezkoak dira, ezin herdoilduzkoak, eta lana errazteko motorrez jo, txikitu, estutu, zanpatu, lasaitu, harrotu eta berriz zanpatzen da sagarra. Sagardo puska bat egin behar duen jende gehienak metalezko horien aldeko hautua egin du. Eta, sagardoa egin eta ontzeko ere, egurrezkoak ez diren ontziak erabiliko dituzte: beira zuntzezkoak, hormigoizkoak edo betoizkoak, plastikozkoak, al-tzairuzkoak...

Urte sasoi honetan belazean ziza topatzea bezain zaila da, baina non eta han bada, oraindik ere, egurrezko dolarerik. Ia denak sagardo asko egingo ez duten tokietan. Baita dolare berriak ekarri eta egurrezko zaharrak atzera utzita daudenetan ere. Edo erdi eroritako etxeen hondakinen artean. Horiek denak maite ditut. Urtetan, ehundaka urtetan sagarra sagardotu duten egur horiek barnean dute gure kultura likidua. Egurra belaki baten tankerakoa da, harroa, arola, fardoa, eta hanpatzeko gai da. Bizirik balego bezala, likidoak bere baitan har ditzake eta puztu, eta hurrengoan seko lehortuko da. Egurra sagardoz blaitzen denean ur-asetu egiten da eta ur-handitu. Bete egiten da, baina sagardoz. Egurraren barruan izango den sagardo horren kudeaketak haginduko du bere etorkizunaz, sagardoa ondu edo txartu egingo duen.

Egurra nolakoa, sagardoa halakoa. Dolareetan eta ontzietan egur asko erabiltzen da, baso bat biltzen dute. Baso bat basorako, edo koparako.

XV. mendean etxea dolarea zen, dolarea zen baserri handien zurajea. Ia erabat haritzezkoa (*Quercus robur*). "Baserri gotikoak" esaten zaie. Gero etorri ziren dolare barrokoa zuten baserriak, txiki-xeagoak eta etxearen zurajetik bereizita zeudenak. Egun ezagunenak ditugun zurezko dolareak XIX. eta XX. mende-



Igartubeiti, dolare-baserri gotikoa, Ezkion.

IGARTUBEITI BASERRIA

takoak dira. Ardatza burdinazkoa dute, baina gainontzeko egitura osoa zurezkoa: azpi-subilak, aska, kantalerak, sareak, hodiak, hagak, pats-oholak, puskak, giltzak eta urkatxua. Zur nagusia haritza da, baina sarea makalarekin (*Populus nigra*) edo zurzuriarekin (*Populus alba*) egin izan dute. Hodiak eta, zenbaitetan, pats-oholak haltzazkoak dira (*Alnus glutinosa*). Askak txulua du, muztioak tinara alde egin dezan, eta, iragazteko, basaerratz (*Ruscus aculeatus*) edo asun (*Urtica dioica*) sorta jartzen zen. Dolare txikietan torlojua edo ardatza zuhandorarekin (*Cornus sanguinea*) ere egin izan dira. Dolarean askaratu aurretik, sagarra subilarekin jotzen zen; horren burua pagozkoa (*Fagus sylvatica*), haritzezkoa edo sagar makatzezkoa (*Malus sylvestris*) da eta kirtena hurritzezkoa (*Corylus avellana*).

Subilarekin haltzazko edo haritzezko pats-ohola joz, kirikoketa musika sortzen da. XV eta XVI. mendeetako laneako musika eta erritmoa, talde lanarekin sortutako haltz bihozgabearen doinuak. Gero etorri zen txalaparta, dolare barrokoaren aska gaineko torlojuak jira eta estutzeko artezko (*Quercus ilex*), pagozkoa edo lizarrezkoa (*Fraxinus excelsior*) makila motzekin haltzazko pats-ohola bera joz eraikitako airea.

Aire horiek aditutako sagar muztioa sagardotzeko egurrezko ontziak izan dira herenegun arte nagusi. Orain metalezkoak. Dolarearen egurrak gero mama gozua izango den sagardoa eraginik badu, tina, barrikote, barrika, bukoi edo upelaren egurrak ere zeresanik badu. Ontzira muztioa haritzezko onilarekin sartzen zen. Upolak batez ere haritzezkoak izan dira, baina baita gerezizkoak (*Prunus avium* eta *Prunus cerasus*), sasiakaziazkoak (*Robinia pseudoacacia*), gaztainazkoak (*Castanea sativa*), lizarrezkoak eta, oso gutxitan, pagozkoak ere. Ontzi horien uztaiak edo ailarak egiteko gaztaina, hurritza, gerezia, haltza eta zumar hostotxikia (*Ulmus minor*) erabili izan dira. Ontziak egitean, upolak edo pipolak estutzeko, zumea (*Salix spp*) erabiltzen zen. Ontzi horiek tarteka ireki ere egin behar, eta zipotza edo txotxa intsusazkoa (*Sambucus nigra*) edo arbustu arruntezkoa (*Ligustrum vulgare*) zen. Edale amorratua zela esateko, barrikaren intsusaren ondoan zegoela esaten zen.

Gero etorriko dira botilaren artelazteko (*Quercus suber*) kortxoa eta eukalipto (*Eucalyptus spp.*) eta abarrezko etiketak. Etiketa horretan, komeni den bakanetan, gehienez ere haritza aipatuko dizute, basoa ikusten uzten ez dizun enbor hori. ●

ORTULAGUNTZA

EKOIZLE TXIKIEI ARNAS EMATEKO LANPOSTU PUBLIKOA DEBAGOIENAN



GARAZI ZABALETA



JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU / GOIENA

Duela urtebete pasa gauzatu zuten Ortulaguntza proiektua Debagoienan. Langile bat kontratatu dute bailarako nekazaritza proiektu txikietan txandaka lanean aritzeko, hartara ekoizleei lan karga arintzeko eta baldintzak duintzeko. “Sektorea zaurgarri zegoela eta errelebo falta zegoela ikusi zuten Bergarako Elikadura Mahaian, eta Biolur elkarteak egindako Duina ikerketako emaitzek ere hori erakusten zuten. Hortik sortu zen lanpostua sortzeko ideia eta bertako udalek eta Landa Garapenerako Elkarrekin sostengatzen dute”, azaldu du Olaia Blanco Azpiri, Ortulaguntza zerbitzuko langileak.

SEI EKOIZPENETAN LANEAN

Bailarako udalek finantzatu dute nekazaritzako lanpostu berria, eta Landa Garapenerako elkarteak da administrazioa eta kudeaketa lanez arduratu dena. Bailarako proiektuei eskaini zitzaizkien lagun-

tza, eta ekimenean parte hartzeri animatu ziren sei ekoizlerekin ari da lanean Blanco. Ekoizle txikiei arnas ematea eta sektorean erreleboa bultzatzea dira egitasmoaren helburu nagusiak, baina baita eskualdeko proiektuen arteko sarea bultzatzea ere. “Hainbat ekoizpenetan pertsona bera aritzeak sarea ere egiten du, eta badira elkarrekin egiten hasi diren gauzak, landare bila joatea edo agroasanblada aktibatzea, adibidez”, azaldu du Blancok.

Bergaran, Antzuolan, Oñatin, Eskoriatzan eta Izurtzan ortugintzari lotutako proiektu agroekologikoetan ari da lanean Blanco: “Hilabeteko edo bi hilabeteko egutegia antolatzen dugu ekoizleekin kontratatuta, haiek adierazten digute zein egunetan datorkien hobeki”.

ERREPLIKAGARRIA DEN EREDUA

Ortulaguntzako kideak nabarmendu duenez, ekoizpen guztiek ez dituzte

behar berak, eta bakoitzari eskaintzen dion ordu kopurua ere ez. “Zenbait proiektutan oporrak kideen artean bantatzeko aukera dute, baina beste batzuetan ez, pertsona bakarra ari delako edo lan karga handia dutelako. Bestalde, denak ez dira lurren eta azpiegituren jabe, edo ez dute lan gaitasun bera”, dio. Lanen kudeaketa langileak egiten du, baina bi ekoizlez eta landa garapen elkarteak kideez osatuta dagoen jarraipen batzordea abiatu zuten hasieratik, eta hau arduratzen da langilearen zaintza eta lanaren jarraipenaz.

Bultzatzaileek uste dute beste toki askotara eramateko modukoa dela proiektua. “Nekazaritzak asko ematen dio gizarteari eta oso egoera zaurgarrian dago, sektore prekarizatu da, ekoizleek lanordu asko sartu behar izaten dituzte... beraz, uste dut garrantzitsua dela diru publikoa horrelako proiektuetara ere bideratzea”, amaitu du nekazariak. ●

Oraina
ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!



Nafarroa, lurralde ekologikoa 2025

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak








Hitz gezidunak

Gaia: * Herri Urrats 2025

TREBE, IAIO HEGAZTI ZANGALUZE	PISU BELARRIKO HEZURTZO	ESKUAREN BARNEKO ALDE	BURUZAGI ERLIJIOSO ISLAMIARRAK LETRA IZENA	OZENKI LEHEN BOKALA	TXAKUR KAZETA	BALIOTSU LOTU GABE
		HEGALDIA ESTRONTZIOA				
ZURA OSO ARINA DUEN ZUHAIXKA * LELOA				BETOKER BAT ERROMATA- RRA		
					NAFARROAKO HERRIA SOLOMOA	
ARGI MOTA	AZKEN ETA HIRUGARREN BOKALAK ESAN GABE			ALOR, EREMU EUSKAL FONEMA		
		ARROZA			... HOC, LATINEZKO LOKUZIOA KONTAKTU	
DOZENA ERDI JADANIK				NAFARROAKO UDALERRIA BORONDA- TEZKOA EZ DEN KEINU		
	ERRESISTEN- TZIA UR IZOZTU				NITROGENOA HALA ERE	
KATALUNIAKO IBAIA ... TREMENS, MUSIKA TALDEA		NAIZEN HAU GOIAN BEGO		ITURBURU, JATORRI UKATU ADITZAREN ERROA	* ABESTIA EGIN DUEN TALDEA	IHIA ... A4, ORRI TAMAINA
				HERRI HIZKERAN, BADA		
LEHENGUSU, TRATAMENDU MEDIKOA			ZERBITZU BATEN BULEGO LODOA			
				FRUITU TROPIKALAK		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7		2				3		
		1	6	5	4	7		
		8		3		9	5	
8		5				4		7
		7		6				
	1	6					3	2
	6		9	7		2	8	
				1	3	6		5
		9	2	4	6	1	7	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- 1. Miltzo.
- 2. Nabari.
- 3. Izan ezik.
- 4. Rap musikari kanadarra.
- 5. Antza, forma.

EBAZPENAK

EITEA
DRAKE
LEKAT
AGERI
TALDE

5X5:

3	7	1	6	7	8	5
2	7	4	3	3	9	1
5	6	9	8	1	3	4
4	1	6	5	9	7	8
2	4	3	8	2	5	7
6	3	2	7	4	6	8
1	9	5	1	8	5	3
7	9	6	1	4	2	3
8	9	5	3	2	1	4
6	4	8	7	3	3	8
1	5	2	6	9	7	4
9	3	1	6	5	4	7
8	4	7	2	8	3	6
5	3	4	6	9	8	2

K	V	N	V	N	V	V	I	P	V	R	E	J
E	T	E	N	I	B	V	K	I	S	U	K	
V	L	A	P	D	U	M	I	R	I	T	E	D
	V	I	Z			V	N		R	E	T	
N		K	I	J					R			J
U	I	U	P						I	E	S	
D	V	Z	J							D	E	L
O	T	R	V						I	U		
I	S	U		N	I	K	E	R	R	V	G	T
L	E	K	Z	E		V	S	U	S	J	N	I
V	D	K	V	Z	V	G	E	H		S	I	B
B	X	O		V	V		V	E		V		



Ondo ereindako uzta

UXUE GUTIERREZ LORENZO LUIS ECEIZA BARRENA

BRN + AUZOKO ETA SAIN MENDI +
ODEI + MONSIEUR LE CREPE ETA MUXKER

ZER: Uzta jaia.

NOIZ: maiatzaren 2an.

NON: Bilborock aretoan.

Ereindako haziak ura, argia eta denbora behar dute ernaltzeko. Naturak berezko ditu zenbait kontu, eta gizakiak laguntzen die hainbat landareri hazten eta loratzen. Zaintza egokia denean eta beharrezko denbora hartzen duenean –eta zorte pixka batekin– uzta jasotzen du laborariak; uzta ona.

Gaurkoan, doinuek eta hitzek osatzen dute uzta; denbora luzean ureztatu eta elikatutako kantuek. *Uzta jaia* izenburupean, hainbat musikari bildu dira Bilborock-en. Ez edonolako musikariak, ez edozein estilo, ez edozein publiko. Rap doinuek hartu dute behinola eliza izan zen eraikin magikoa. Tentuz aukeratutako kartel buru eta gonbidatuak, eta haria argi hasieratik: ereindako uzta jasotzeko eguna da gaur.

Sarreran, eskumuturrean zigilua jartzearekin batera, gutunazal txiki bat eman digute. Barruan, haziak eta kolore biziz hornitutako pegatinatxo bat. Uzta diskoaren azal koloretsua da itsasgarria, Itzar marrazkiak-ek egina. Detailetxoa

ondo gordeta sartu gara aretoan. Dagoneko lehen musikaria oholtza gainean dago, BRN gasteiztarra. Aletu ditu kantu indartsuak musikari gazteak, eta ordu erdiz gelditu gabe aritu da kantu indartsuak eta rap sarkorra josten.

Giroa zertxobait epelduta, gaueko bigarren kontzertua hasi da: Auzoko. Mikel del Barrio, *delba*, txikitatik ezagutzen dugunontzat. Urduri eta, akaso, zertxobait hunkituta ere hartu du hitza. Jon Mujika 'Muji' izan du alboan uneoro, eta bizkarrak gordetzen, Saim Mendi. Harilkatu ditu Zoroen Kluba kolektiboaren izenean aurrez aurkeztu zituen zenbait kantu, kolaborazio ugari eta gaur aurkeztera datorren *Uzta* diskoko abesti berriak. Bata bestearen atzetik igo dira oholtzara landa lanean lankide izan dituen guzti guztiak: Raperu, Ziztada, ØDEI, Monsieur LeCrepe, Blesz... eta kontzertuaren bigarren zatian bere kabuz jardun du. Publikoarekin bat egin da, pozik eta gogotsu, egindako lanaren fruituak jasotzen.

Konturatu orduko joan da ordubeteko saioa, eta oholtza behetik segitu du Auzoko-k antolatutako saioa. *Goizegi Hiltzeko* aurkeztu berritan, ØDEI igo da oholtzara. Ahoan bilorik gabe jardun da kantuan eta abestien arteko hitzarzteetan. Besteren artean, bazterretik aritzeaz, galeren minez, oholtzan bakarka aritzeaz eta musikaren industria krudelaz mintzatu da musikaria. Esango nuke, tentuz entzuteko musika egiten duela Odeik. Bere istorioa ere kontatzen digu, adi entzuten baldin badakigu. *Terapia* eta *Goizegi Hiltzeko* diskoetako kantuak tartekatuta, barrenak astintzeko moduko ordubeteko saioa egin du.

Rap dantzagarriagoak hartu du os-tean oholtza: DJ PATAxMonsieur leCrepeMuxker aritu dira giroa epeltzen. Bilketa bukatu da horrela, azken alea.

2025eko udaberriko uzta oparoa izan da. Orain, beste herri eta oholtza batzuk astinduko dituzte raplari gazteek. Aurtan rap doinuek ere aletu baititu euskal musika eszenak. ●



LIBURUA

Puntadaz puntada aldatzen



KULTURKLIK

TAPAKIA
MAITE GURRUTXAGA
 EREIN, 2025

XABIER ETXANIZ ERLE

Tapakia liburu honen azala ikusten badugu, bertan sagu pipertu bat ikus dezakegu lehortzen ari den tapaki zuri-zuri baten ondoan. Gero, normalean kasu gutxi egiten diegun babes-orriei erreparatuta, ikusi ahal izango dugu nola aldatu den sagu hori. Babes-orri horiek istorioaren bertsio laburtua ematen digute, baina gu, hori ongi ulertzeko, liburuko orrietan barrena murgilduko gara, testurik gabeko liburuaren irudietan, eta atzeko azalean tapaki berria, umeak eta hasierako protagonista itxuraldatuak aurkituko ditugu.

Bi umeek tapaki zuria baloiarekin jolasean zikindu duten unea dugu abiapuntua; ondoren saguak garbitzera eramaten dio umeen amari, pipertu-

ta, haserre umeekin eta munduarekin; umeen etxean, baina, apur-apurka auzokoak agertzen hasiko dira prest den meriendara; kafea (edo tea) hartzen dute gozokiekin, solasean, umeak jolasean, elkar agurtzen eta partekatzen dena. Tapakia, bitartean, aldatzen ari da, garbitu eta puntadaz puntada zuri-zuria zena koloretako tapaki berria bilakatu arte.

Istoria, ia bere osotasunean, espazio berean gertatzen da (Maite Gurrutxagak *Tik bakarrik, tak ikarak* liburuan egin zuenaren antzera) eta horrek aukera handiak ematen ditu pertsonaiekin eta objektuekin jolasteko. Zertan ari diren, nola aldatzen diren, batzuen eta besteen aldaketekin istorioaren garapena ikusteko, "irakurtzeko", protagonista baten

jarraipena bilatzeko, ikusteko, disfrutatzeko...

Protagonistak animaliak izatea, saguak, lagungarria da gizakiengandik bereizten direlako, baina, aldi berean, identifikatzen laguntzen duelako. Sagu pertsonifikatu horiengan ikus dezakegu geure burua: petralduta dagoen saguak besteak onartzen dituen aniztasunaren aldeko aldarria egiten da, jolasten ari diren umeen bidez alaitasunarena, elkarrekin ari diren emakumeek laguntzarena, guztion jokabideak komunitatearena... Izan ere, liburuak irakurle adina irakurketa baititu. Disfrutatu, ikasi, gozatu, irri egin edo jolasteko obra gomendagarria, haurrekin nahiz haurrentzat. ●



MUSIKA

Jolasean? Hauek serio dabiltza!



J.A. ARETA GONÍ 'JUXE'



IT'S ON

JOHN DEALER & COCONUTS

GHOST HIGHWAY, 2025

IKER BARANDIARAN

A din batetik aurrera kontzertuak, diskoak eta kantuak bizkarrean eta burmuinean pilatuta, eta musika entzuteko denbora murriztagoa bilakatuta, taldeak bilatu eta aukeratzeko unean aurreiritziek pisu handiagoa hartzen dute zoritxarrez; are gehiago, denbora luzean sakondutako musika estiloetan. Denbora eskasiaren eta aipatutakoaren ondorioz, badira ezinbestez bazterrean gelditzen diren tona talde.

Halako zerbait gertatu zait, besteak beste, John Dealers & The Coconuts taldearekin. Punk-rock, rock-and-roll, high-energy eta antzekoen betekada kontzientea izan ostean, oharkabean pasa zait, adibidez, Legazpiko laukote hau aspaldian. Bada, *It's on* laugarren

lanak harrituta utzi nau. Tarteka Hellacopters-ek biziberritu zuen nerbio bizi-ko hard-rocka, hainbeste zabaldutakoa, ikur badute ere, oso dotorea da emaitza, eta ingelesezko dikzio sinesgarri eta sentikorra dauka.

Taldeak erdietsi du heldutasun instrumental eta musikala; eta, hain justu, hamar urte bete dituela ospatzeko Garatte estudioan grabatu ditu soinu oso onarekin honako zazpi kantuak, bi ekoizle berezi eta jakitunen laguntzarekin: Eskandinaviako rockaren bultzatzaile Ola Ersfjord eta power-poparen azti Kurt Baker estatubatuarrekin.

White gloves-ek Sewergrooves-en esentzia eta indarra dauzka, afinazio bereziarekin, zikinkeria eta gardentasuna-

ren arteko oreka lortuta. Gainera, badu nolabait Lynott-en arima ere. *Out of experience*-ren bidaian kopilotoaren eserlekuan doa *High visibility* eta -ausartuko nintzake esaten- Rick Ocasek bera ere. *Stop (now!)* da 1960ko hamarkadako handitasunetik abiatuta power-pop eta hard-rockaren mugak aztertu eta zeharkatzen dituen pieza berezia. Diskoaren B aldean, berriz, memorabilia lana egin dute taldeak idatzitako lehen kantua (*No one says goodbye*), rock-and-roll azeleratu eta aztikeriakoa dena, ia psychobilly bihurtuz. Eta, bukatzeko, bi opari: *Sons of a revolution* balada rockero oso sentikorra; eta L.A.gazpiko soinu sarkorraz gain, gitarrero eta wah-wah zelatzea daraman *Set on fire* zaldi eroa. ●

Hainbeste goxoki

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gutxi hitz egiten dugu Kentuckyri buruz. Eta pena da, han ere gauzak gertatzen baitira, nahiz eta AEBetako estatu horren izena oilasko erreten multinazional batek ia erabat estali duen –erreparratuko zenioten, portzierto, KFCren logoan agertzen den tipoak Trotskiren antz ikaragarria daukala: lagun bat konbentzituta zegoen “Komintern Fucked Communism” siglak ezkutatzeko dituela asuntuak–. Badaukagu, beraz, eta horra iritsi nahi nuen, Kentucky oso bat esploratzeko oilaskotik harago. Lurralde bat, benetako jendez osatua, euren egunero-ko problemekin. Goizero jaiki eta onena ematen saiatzen diren lau milioi eta erdi lagun, zeintzuetaz ez garen akordatzeko inoiz. Ez dirudi hori oso justua denik. Saia gaitezen konpontzen. Ea, zer pasa da Kentuckyn joan den asteen: “Zortzi urteko ume batek 70.000 txupatxus eskatu ditu Amazonen, bere amaren telefonoa erabiliz”. Historia zirraragarria, inondik ere. Zupa dezagun pixka batean, ea zeren zaporea daukan.

Kontuak bi protagonista ditu: Holly LaFavers, Lexington hirian bizi den ama bikotekidegabea; eta haren semea, Liam. Hilaren 3an, lehenbizikoa gosaria prestatzen ari zen bitartean, bigarrenak amaren telefonoa hartu zuen, Amazonen sartu, eta tap-tap, historiako txupatxus-erosle handiena bilakatu zen. Biharamunean hasi ziren goxoki makiladunen kaxak eta kaxak eta kaxak iristen. Eta orduan deskubritu zuen amak pastela –tira, esateko modu bat da–.

Ondoren gertatu zena kontatzea inportantea da, goxoki-erosle masibo batekin bizi dela konturatu den guraso batek jakin behar baitu zer pasatzen den zure aingerutxo azukrezaleak 4.200 dolar bizioan gastatzen dituenean. Baten batek pentsatuko du agian ekonomia domestikoak gutxiago sufrituko lukeela beste drogaren batekin zaletu izan



balitz, eta ideia hori gorputza hartzen hasi baino lehen moztu behar da: lasai denok, amaiera zoriontsua da. Notizia prentsan agertu denean, Amazonek gatatutako dirua bueltatu dio amari; honek doan banatu ditu bestela ere non sartu ez zekien milaka txupatxusak; eta hori gutxi balitz, goxokiak ekoizleak zin egin du lan-elkarritzeta egingo diola umeari, horretarako adina daukanean betiere.

Historiaren azken parteak konbentzitzen nau gutxien, noski, baina bueno, ume gozozale batek txupatxus fabriketan lan egiten bukatzea nahiko bat dator *happy ending* osotora yankiekin. Kontuak dauzkan bestelako zimurrak ere interesatzen zaizkit, ordea. Eta hemen-dik aurrera serio jarriko naiz. Hortaz, irakurri ondorengo lerroak soto ilun batetik datorren ahotsarekin: milaka goxoki eskatu dituen haur horrek, albisteen arabera, umeki alkoholikoaren sindromea dauka, bere ama biologikoak –ez orain zaintzen duenak–, haurdunaldian alkohola edan zuelako. Horren efektuetako bat da ez dituela kausen eta ondorioen arteko harremanak beti ondo

ulertzen. Nekez konprenitzen du berak egindako zerbaitek –sarean goxokiak eskatu–, beste gauza batzuk ere eragiten dituztela –amaren kontu korrontean sekulako zuloa–. Sindromearen beste gauzetako bat hiper-fijazioa da: Liam, adibidez, inauteri-festekin obsesionatuta dagoela dio bere amak, bere lagunekin horrelako *party* bat egiteko asmoz eskatu zituela goxokiak.

Kentuckytik datorren notizia honek, beraz, kontzientziak astintzeko balio beharko luke: ekintzek ondorioak dauzkate, eta horiek ere kontuan hartu behar dira. Eta ez da ona gai batzuekin gehiegi obsesionatzea, munduan beste ezer ez balego bezala. Bi ideia sinple horiek erabaki-esparru handiagoetara eramanez gero –nik zer dakit: geopolitika, adimen artifiziala, krisi ekologikoa–, harrituko zara ikusita zenbat jende boteretsuk jotkatzen duen egunero-egunero umeki alkoholikoaren sindromea daukan zortzi urteko ume batek bezala, gaiarekin tematuta eta ondorioak kontuan hartu gabe. Ez dute hain titular barregarririk ematen, noski. ●



Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

Jertsea **28 €**

Amul been nit ku leegalul



Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

ZIBURUKO 6. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 7AN



ANTOLATZAILEAK

ARGIA

BALTSAN
ELKARTEA

PARTAIDEAK

DOMINILE
ELKARTEA

EUSKAL
IRRATIAK

elke

EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

ZIBURU
CIBOURE